



ANTONIO ZAVALA, S. J.

OIARTZUNGO
beste lau bertsolari

OIARTZUNGO
beste lau hertsolari

COLECCION AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa
(Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA, S. J.

OIARTZUNGO
beste lau bertsolari

AUSPOA LIBURUTEGIA

1974

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)
Depósito Legal: 503/74
I. S. B. N.: 84-7158-072-1
Junio - 1974

ARKIBIDEA

BI ANAI BERTSOLARI

ARDOTX BERTSOLARIA:

Jose Antonio Bengoetxea Lekuona
(1826 - 1878)

Juan Antonio Bengoetxea Lekuona
(1819 - 1899)

Bi anai bertsolari	11
Ardotx bertsolaria: Jose Aantonio Bengoetxea Lekuona (1826-1878)	13
Zenbait bertso	18
Juan Antonio Bengoetxea Lekuona (1819-1899)	23
Zenbait berri ta bertso	27
“Bestek aplikatu dit...”	33
Ardiai	38
Ameriketara	40
Juana Joxepa Bengoetxea Oiartzabal (1861-1943)	47
Gorotza ala iratzea?	49
Esponjak	53

BEKOETXIA

Manuel Maria Olaziregi Iribarren
(1824 - 1904)

Bekoetxia bertsolaria: Manuel Maria Olaziregi Iribarren (1824-1904)	61
--	----

Ezagutu zutenak diotena	67
Zenbait bertso	72
Bertso jartzea	85
Kontrabandoan	88
“Txantxangorri”	97

MARTZELINA

Martzelina Lopetegi Olaiz
(1864 - 1930)

Galtzareta	105
Bertsolaria	109
Martzelina ta Txirrita	116
Amerikanoa ta neskatxa	120
Martzelina ta Artxabaleta	125
Ezkontza	134
Eriotza	137

BI ANAI BERTSOLARI

Ardotx bertsolaria:

Jose Antonio Bengoetxea Lekuona
(1826 - 1878)

Juan Antonio Bengoetxea Lekuona
(1819 - 1899)

BI ANAI BERTSOLARI

Ardotx bertsolariak orain baño len ere itzegiñak gera: Xenpelarren liburuan (Auspoa 88-89-90), 101 orri-aldetik aurrera, eta Larrabururen liburuan (Auspoa 115), 22 orri-aldetik aurrera.

Gure ustetan, orrenbesterekin bukatuak genituan bertsolari onekiko lanak eta esatekoak; baña geroztik ere gauza berririk jaso degu, ta egoki izango da gaur emen jartzea.

Gure berri-emale berriak, onoko iru jaun auek izan dira: Ugaldetxoko Garro baserriko Jose Rekalde; Iturriotzko Arbide'n jaio ta Errenteriko Altamugarri-erdikoa'n bizi dan Jose Manuel Mendiburu; ta Euxebio Zabala, Errenteriko Baringarate-goikoa baserrian (Bainketa-goikoa) jaio ta bertan bizi dana.

Iru jaun auek ao batez diotenez, Ardotx bertsolaria Oiartzungo Ugaldetxo ballarako Ardotxene baserrian jaio zan, eta ortikan zetorkion izengoitia.

Ardotxek, anai bat bertsolari zuan. An-

ttoniyo zuan izena, ta Errenteriko Altamugarri-erdikoan bizitu zan.

Onezaz ere badegu zer kontaturik, baina lenengo Ardotxen berriak emango ditugu, ta gero Anttoniyorenak.

ARDOTX BERTSOLARIA

JOSE ANTONIO BENGOETXEA
LEKUONA
(1826 - 1878)

Ardotx bertsolariaren aditzera, edozein Oiartzun aldeko bertso-zalek dauka, bañan aren izen abizenik iñortxok ere etzekian; ta, ala, artxiboetan nundik azterketan asi etzegoan.

Illuntasun ortatik Ugaldetxo'ko Garro baserriko Jose Rekalde'k atera gaitu. Jaun onek irurogei ta emezortzi urte ditu orain. Berak ere etzekian Ardotxen izen-abizenik, bañan ikasteko bi bide eman zizkigun.

Lenengoa: Ardotxen billoba, seme baten semea, alegia, Errenterian, Santa Klara kalean, alako etxetan, bizi zala, ta Luis Bengoetxea Aizpurua zeritzala.

Bigarrena: Ardotx bertsolaria, bere osaba baten aita-pontekoa izan zala, ta osaba ori Jose Luis Olaziregi zeritzala, Oiartzunen jaioa ta bertan illa, Iturriotz--

ko Torres baserrian, larogei ta iru bat urterekin, 1949 edo 1950 urtean.

Lenengo pausoa Ardotxen billoba orren-gana egin genduan. Baietz esan zigun: bere aitona, aitaren aita alegia, Ardotx bertsolaria izan zala. Bengoetxea arek ere abizena, beraz, bañan etzitzaion izenik oroitzen.

Bañan orregatik berdin zan; bearrezkoena bagenduan, eta ortik aurrerakoa errez billa zitekean.

Ardotxen billoba orrek esan zigunez, bera Irungo katean, Txatenea baserrian jaioa zan, 1900.II.15'an; bañan bere gurasoak, Juan Jose Bengoetxea ta Frantziska Aizpurua, Oiartzungoak ziran eta bertan esposatuak. Ala, Iruna joan gabe ere, azterketa guzia Oiartzungo eliz-artxiboan egin zitekean, eta ala egin degu.

Lenengo, Juan Jose ta Frantziska oien ezkontz-agiriaren billa asi giñan: 1885 urteko Garagarrillaren 6'an esposatu ziran; ta Juan Josereren gurasoak Jose Antonio Bengoetxea ta Amalia Beobide izan ziran (1).

Jose Antonio Bengoetxea ori, beraz, Ardotx bertsolaria.

(1) Oiartzungo 11'garren ezkontza-liburuan, 220 orrian.

Izen-abizenen ondoren, «*propietario, arriero*» zala esaten da.

Besterik gabe ere naikoa genduan; etze-goan zer duda egin Ardotx bertsolariak izen-abizenak zer zituan. Bañan, bada-etzpada ere, Jose Rekalde'k emandako bigarren bidea ere probatu nai izan genduan, bigarren bide ortatik zer aterako zan ikusteko.

Esan bezela, Ardotx bertsolaria, bere osaba baten aita-pontekoa izana zan; ta osaba ori Jose Luis Olaziregi zeritzan, ta oiartzuarra zan, larogei ta iru bat urterekin 1949 edo 1950 urtean illa.

Lenengo, Jose Luis orren eriotz-agiria billatu genduan: 1950.II.1'an il zan, larogei ta bi urterekin (2).

Urrena, bataio-agiria: 1868.IX.1'an jaio zan. Beraz, larogei ta bat urterekin il zan, eta ez larogei ta birekin, eriotz-agiriak dienez. Ta aitajauna nor zuan, onela esaten du itzez-itzez bataio-agiri orrek:

«...padrinos: por José Luis Olaciregui, José Antonio Bengoechea, arriero, ambos casados...» (3).

Aitajauna ez, beraz; aitajaunaren ordekoa baizik.

Jose Antonio au degu, batere dudarik

(2) Oiartzungo 19'garren eriotz-liburuan, 86 orrian.

(3) Oiartzungo 17'garren bataio-liburuan, 20 orrian.

gabe, Ardotx bertsolaria. Bi bidetatik abitu ta gauza bera arkitu. Etzebillen oker Jose Garro adiskidea, Milla esker berari!

Urrengo pausoa: Jose Antonio Bengoetxea orren bigarren abizena. Andrea Amaña Beobide baitzuan, ezkontza-agiria bilatu genduan: 1856.IV.14'an esposatu ziran, Oiartzungo elizan. Ta Jose Antonioren bigarren abizena: Lekuona .Ta gurasoak: Nikolas Bengoetxea ta Josefa Inazia Lekuona, biak oiartzuarrak. Andrea-renak: Inazio Antonio Beobide ta Nikola-sa Arbide (4).

Urrena, bataio-agiria: Jose Antonio Bengoetxea Lekuona, Ardotx bertsolaria alegia, 1826.IV.12'an jaio zan (5).

Gurasoen izenak eman ditugu. Aiton amonak, aitaren aiekatik: Juan Jose Bengoetxea ta Maria Joakina Portu; amaren aiekatik: Juan Jose Lekuona ta Manuela Retegi.

Bataio-agiriak ez du esaten jaiotetxearen izenik; bañan, len esan degunez, Ugaldetxoko Ardotxene baserrian jaioa omen zan, eta ortik izengoitia.

Etzan bakarra; senideak bazituan. Onoko auek arkitu ditugu: Markos, 1814.IV.24'an jaioa; Josefa Antonia, 1816.VIII.18'-

(4) Oiartzungo 10'garren ezkontza-liburuan, 242 orrian.

(5) Oiartzungo 14'garren bataio-liburuan, 83 orrian.

an; Juan Antonio, 1819.V.31'an; Juana Ramona, 1828.VIII.12'an (6).

Len esan bezela, Juan Antonio ori ere bertsolari zan; bañan orrenak gero.

Ardotx bertsolariak, Jose Antonio orrek alegia, ta bere emazte Amalia Beobide'k, onoko seme-alabak izan zituzten: Jose Inazio, 1856.XI.9'an jaioa; Benijno, 1858.II.12'an; Juan Jose Zeferino, 1859.VIII.26'an; Luis Inazio Kalisto, 1861.X.14'an; Migel Antonio, 1863.X.1'an; Maria Karmen Mikaela, 1865.VII.15'an; Martzelina Josefa Mikaela, 1867.I.2'an; ta Pedro Seberino, 1870.I.7'an (7).

Ardotx zein etxetan bizi zan ez dakigu; iñork ez digu esan, eta agirietan ere ez da ori aitutzen.

Ardotxene baserria erre egin omen zan karlisten lenengo gerratean (1833-1839). Ala esan digu Jose Manuel Mendiburu'k.

Ardotx bertsolaria, 1878 urteko Azaroaren 4'an il zan, «*de neumonia crónica*» eriotz-agiriak dionez. Agiri orrek berrogei ta amairu urterekin il zala esaten du, bañan berrogei ta amabi zituan, 1826 urtean jaioa baitzan (8).

(6) Oiartzungo 13'garren bataio-liburuan, 21, 45 ta 72 orrietan, eta 14'garrenean, 135 orrian.

(7) Oiartzungo 16'garren bataio-liburuan, 51, 79, 121, 175, 229, 300 ta 356 orrietan, eta 17'garrenean, 56 orrian.

(8) Oiartzungo 12'garren eriotz-liburuan, 90 orrian.

ZENBAIT BERTSO

Ardotx bertsolariaren bi bertso Xenpelarren liburuan (Auspoa, 88-89-90) jarri genituan: bat, Exkerrari botia, 103 orri-aldean; ta bestea, Xenpelarri Lezon kantatua, 106 orri-aldean. Oiek ez ditugu ostera emen jarriko.

Beste batzuek geroztik jaso ditugu, ordea, ta oiek eskeñiko dizkiogu orain irakurleari.

Onako auek Errenteriko Baringarategoikoa (Bainketa-goikoa) baserriko Euxebio Zabala'ren aotik ditugu. Onela zion Euxebio onek:

«Bein bear eta Ardotx tabernatikan etorri zan berandu xamar.

Goizean mezetara joan, eta uste gabean eguna pasa tabernan, bere lagun-artean eta bere komeri, eta etxeratu zan gabean; berak esaten duenez, amarrak eta erdi alde orretan.

Bañan onoko patxara eder onekin etorri zan, da, etxera allegatu zanean, ez da-

kii andreak atea edeki nai etzion edo itxia zegoen; beiñepeñean, Ardotx modu on-tan mintzatu zitzaion kanpotik emazteari:

- 1/ Andria erritan ai da
arrazoiarekin,
ola ezin liteke
onela gurekin; (1)
jaia pasatu eta
diru gutxirekin,
Ardotx tabernatikan
iru semerekin.

- 2/ Amarra ta erdiyak
oraindik goiz-ta, (2)
gu ezkerade ibiltzen
orrela noiznaiz-ta; (*sic*)
atia iriki zazu,
neure andre maixtra,
kaballero-moduan
ibilliya naiz ta.

- 3/ Andria aserratzen
asiya det kaso,
arrazoia berekin du
nere uste osoz:
«Amar t'erdiya jota
etxera al zatoz?
Famili dana ondatzen
zere buru gaiztoz!»

(1) Bearbada beste onela izango da: "ola ezin liteke — burutu gurekin".

(2) goiz-ta: goiz da.

- 4/ Astelenian jaiki
gerade berandu,
aziendak mazkatzen e
ez gera izandu;
jaten emain ziguten
lana egin bagendu;
gose-xamartu gera,
tripak ezagun du.
- 5/ Egunian bi aldiz
au da ixillua,
alare ezin bete
esnez katillua;
askotan aitatutzen
dedan ikullua:
beiak adarrak dantzan
ta nik akullua.

Lenengo bertsoak «iru semerekin» esaten du. Len esan degunez, Ardotxek sei seme zituan, ta bi alaba.

Bigarren bertsoa len ere argitara eman degu: Auspoa 76, 137 orri-aldean, Artzai-Txikia bertsolariarena dala esanaz. Orain Euxebio Zabala onek Ardotxena dala dio. Zeñek arrazoi? Onezkero zaila izango da auzi ori erabakitzen.

Bostgarren bertsoa, *Ibaizabal* aldizkarian, 1903.XI.22'an, argitaratu zan, amalau bertsoako sail batean aurrena eta Kepa Enbeita'rena zala esanaz.

Euxebio Zabala'ri esan genion ori, ta

berak beti bere aita zanari bertso ori
Ardotxena zala entzun ziola erantzun zi-
gun. Ontan ere zeñek arrazoi?

Ibaizabal'en onela dago bertso au:

Komedi-tokia da
gure okoillua,
beiak adarra dantzan
ta ik akullua,
gaur bigarren aldian,
mutil kankallua,
esnez bete eziñik
eure katillua.

* * *

Beste auek, berriz, Oiartzungo Juan
Mari Lekuona'k bialduak ditugu. Onela
zion gure adiskide onek:

«Orain dala ogeiren bat urte, artzan-
tzako jakingarriak biltzen ari nintzala,
nun eta nori ez dakidala, jasoak:

Ardotx:

Asko presonagatik
ala det aditzen:
al dutenian ari
dirala kojitzen;
an egon biarko dute
denak padezitzen,
inpernuko iguri (*sic*)
gaixtuak sufritzen,
orra zer peligruan
geraden bizitzen.

Eta beste bertso baten puska:

...Demoniyu zarrak,
luzatzen dituztela
beren atzaparrak,
ai, zer egin dezaken
anima bakarrak.»

Beraz, lenengo bertsoa osorik eta bigarrena erdizka. Lenengoa ez degu beste iñun arkitu; bigarrena, berriz, Auspoaren 56'garrenean, 106 orri-aldean, argitaratu genduan, Udarregirena zala esanaz eta zenbait aldaketarekin.

JUAN ANTONIO BENGOETXEA
LEKUONA
(1819-1899)

Len esan bezela, Ardotxen anai bat ere bertsolaria zan. Juan Antonio zeritzan, eta 1819'eko Maiatzaren 31'an jaio zan, goizeko zortziretan. (1)

Bañan Juan alde bat utzita, Anttoniyo deitzen omen zioten. Ala esan digute beintzat, aren berri eman digutenak: Jose Manuel Mendiburu eta Euxebio Zabalala. Guk ere Anttoniyo esango diogu.

Anttoniyo au ere, bere anaia bezela, Ardotxene baserrian jaioa omen zan; bañan oni etzioten Ardotx esaten. Guk ez degu olakorik aditu beintzat. Zergatik ote? Erriak, gogoak nundik jotzen dion jartzen ditu izengoitiak, eta alperrikan da zergatik-eta galdetzea. Ala ere arrazoi bat esango genduke:

Juan Antonio au, 1841'eko Otsaillaren 3'an ezkondu zan, ogei ta bi urte osatu

(1) Oiartzungo 13'garren bataio-liburuan, 72 orrian.

gabe beraz; ta, gañera, kanpora ezkondu. Onek esan nai du gazterik xamar aldegin zuala Ardotxenetik; esate baterako, Ardotx izengoitia bereganatzeko denborarik gabe.

Andrea, Josefa Inazia Oiartzabal zertizan; Oiartzungo alaba zan, bañan Donostiko partean bizi zana.

Anttoniyo ta Joxepa Iñazi alkarrekin zerbait aide egiten ziran, laugarren graduano-edo. Orregatik, Erromatik baime-na eskuratu bear izan zuten, ezkonduko baziran. Onela dio ezkontza-agiriak:

«...habiendo obtenido de su santidad Gregorio XVI la dispensa del cuarto grado de consaguinidad el día siete de Julio de mil ochocientos quarenta, como también la competente autorización del Señor Provisor de esta Diocesis, Dr. Dn. Miguel Jose de Irigoyen, concedida el día diez y seis de setiembre último...» (2)

Altamugarri-erdikoa baserrian bizitu ziran. Beste bi Altamugarri ere badira: goikoa eta bekoa. Errenteriko partean dira iru baserri auek. Goikoa ta Bekoa utsik daude gaur, ta Erdikoan len aita-tutako Jose Manuel Mendiburu ori izaten da bakar-bakarrik.

Oso mendian dira baserri oiek: Aldura

(2) Oiartzungo 10'garren ezkontza-liburuan, 112 orrian.

kaxkoaren azpian, Erreteriko kalera ordubete ta iru laurden oñez, eta Oiartzungo plazara ordu laurden edo or nunbait. Alderago beintzat Oiartzun, eta orregatik onera zuten joera guzia.

Onoko seme-alaba auek izan zituzten: Jose Nikolas, 1841.XII.29'an Erreteriko partean jaioa, bañan Oiartzunen bataiatua (3); Josefa Antonia Silbestra, 1846. XII.31'an; Jose Inazio, 1849.III.13'an; Felipa Inazia, 1851.XII.28'an; Josefa Teresa, 1855.V.8'an; Jose Antonio, 1858.III. 13'an; ta Juana Josefa, 1861.IX.22'an. (4)

Juana Joxepa onezaz ere zerbait kontatu bearra badegu, bañan orrenak gero.

Bataio-agiri auetan, aiton-amonak amaren aiekatik Landarbaso'n bizi zirala esaten da beti. Ta Jose Manuel Mendiburu'k baietz esan digu: Landarbasoko Larraz baserrian bizi zirala alegia.

Anttoniyo bertsolari au, bere emazte Joxepa Iñazi ta aurrak emen utzita, Ameriketara joan omen zan; gero, an denborra puska bat eginda, onera etorri ta alkarrekin bizitu ziran.

Anttoniyo, 1899'eko Garagarrillaren 12'an il zan, goizeko bederatzietan, «*de muerte natural*», eriotz-agiriak dionez,

(3) Oiartzungo 15'garren bataio-liburuan, 73 orrian.

(4) Erreteriko 13'garren bataio-liburuan, 27, 56, 99 ta 153 orrietan; eta 14'garrenean, 6 ta 72 orrietan.

irurogei urte zituala. Il zan etxearen ize-
na ere esaten du agiriak: Artamugarri-
-erdikoa. (5)

Emaztea, Joxepa Iñazi, 1902'eko Mar-
txuaren 15'an il zan, larogei ta bi ur-
terekin, «*de muerte natural*» au ere,
eriotz-agiriak dionez, Artamugarri-erdikoa
etxean. (6)

(5) Errenteriko 10^o garren eriotz-liburuan, 160
orrian.

(6) Errenteriko 10^o garren eriotz-liburuan, 344
orrian.

ZENBAIT BERRI TA BERTSO

Len esan bezela, Jose Manuel Mendi-buru eta Euxebio Zabala izan dira Anttoniyo onen berri eman digutenak. Jose Manuelek esanak jarriko ditugu orain.

Jose Manuel onek larogei ta bat urte ditu. Oiartzungo Iturriotz ballaran jaioa da, Arbide baserrian, eta Altamugarri-erdikora esposatua; Anttoniyoren etxera alegia.

Etixerako gelditu zana, Anttoniyoren alaba gazteena izan zan: Juana Joxepa. Ta ezkondu ere egin zan, bañan familiarik etzuten izan. Orduan semea ta alaba kanpotik ekarri zituzten, ta alaba, Lorentxa, gelditu etxerako. Ta Lorentxa orrekin Jose Manuel ori esposatu.

Orregatik, Jose Manuel onek zerbait ere jakin zezakean Anttoniyo bertsolari-az; bai ala izaki ere. Onela esan digu:

«Emengo Anttoniyo au, an jaioa zen, Ardotxenen; gero esposaturik onera etorria, ta emen bizitu ta emen il; baño Ardotxenen jaioa.

An esposatu ta gero onara etorri. Andreak ezin etsi an, Larraz'koa baitzen. Jakiña, ba: mendian usatuak beti, eta ardiak-eta gustatzen; ta an bat ere ez, ta gero emen artalde aundia izaten.

Errejidore ta errian maite zutena Anttoniyo ori. Ura, ia meza emateraño apaiz-eskola ikasia omen zen. Jakiña, gero ezin sostenitu-edo, beñepein utzi karrera, ta gero mendian langilleekin-ta ibiltzen zena. Ta joan ta aiuntamentuarekin bazkaldu-ta egiten omen zuen.

Joxepa Iñazi andrearen izena; ta ura, gaxoa, umeein-ta emen, ta gizona bertso-tan.»

Larraz esan du Jose Manuelek Anttoniyoren andrearen etxea. Baserri ori Donostiko partean dago, Landarbaso'n. Len ere aditzera eman degunez, ori bera esaten dute agiriak ere.

* * *

Anttoniyorenak, bi bertso eman dizkiugu Jose Manuelek; bi bertso osorik ez, erdizka baizik. Onela zion:

«Larraburu bertsolaria Goierrira joan alegia. Goierria, Astigarraga'ko bentatik aurrera, eta orrera atera goikoak, eta zer egin diote? Bera bakarrik sumatu dutenean, zerbait ere burla egin Larrabu-

ruri, ara joan ziran aik; eta gero nik ez dakit, Anttoniyok botia zen edo Larraburuk botia zen:

Goierriko gizon oiek goian
ditek galtza-gerrikua,
nunbait etzîten
beren neurrikua,
aixa menderatu ditek
gure errikua.

Anttoniyok botia da beste au ere:

Enbustero zuriya,
iztun lañua,
ik zertan jo dek gabian
besteren leiua?
Biorren tarterako
a zer garañua!»

* * *

Urrengo au ez da bertsoa, bañan bertsoarekin zer ikusirik duana. Jose Manuel Mendiburu'k kontatua degu:

«Iru bei koxkor, eta, menditik etxera eldu ziranean, iru joalerekin, bueltaka-bueltaka emen malda beiti etortzen, eta arek, Anttoniyok, ederki bere doñuan kantatzen zuen; joaleen otsa bezela kantatzen zuen.

Batek:

—Orain poliki! Orain poliki!

Ta besteak:

—Laixter ongi! Laixter ongi!

Ta besteak:

—Gero obeki! Gero obeki!»

* * *

Ta Anttoniyo il zaneke oroipena ere badu Jose Manuel Mendiburu onek. One-la esan zigun:

«Gu umeak orduan; nik lau edo bost urte; ta Arbiden, ni Arbidekoa bainaz. Ta an beste aiekatik jeixten zen gorputza, menditik; eta ara etorri ziranean, muntto batean utzi kaja, munttoaren gainean, atsedeen egiteko, ta:

—Or aiton bat il da Altamugarrin!

Gu umeak, eta:

—Ori nora eramanean bear dute, ama?

Eta jakiña umeai zer esango zieten gurasoak:

—Zerura! Zerura!

Berak ala esaten omen zuen, entierro guzietara joaten omen zen eta:

—Ni iltzen naizenean, iñor ez da elizara joango!

Eta etxe denetara abixua bialdu ala-

bak, Juana Joxepak. Aren faltan etzela jendea joan gabe geldituko, eta propiyo bi gizon etxez-etxe ibilli omen zituzten alabak-eta.

Ta jendea kantidadea. Denak arrituta geratu omen ziran.

Alaba, Juana Joxepa ori, ala aritzen zen esaten.»

* * *

Ta Anttoniyoren seme-alabak zer egin zuten, onela aditzera eman digu Jose Manuelek:

«Zarrena Ameriketara joan zen.

Bestea, etxean biotzeko miñez egoten zen; atakeak izaten zituen, ta illa billatu zuten. Gazterik illa ura.

Bestea, Teresa, Pikorrenera esposatua.

Beste alaba, Ameriketan. Ameriketako ori Pamplona'n illa da, andik buelta egin da. Ameriketan adiskidetu ta gero elkarrekin ezkondu; orko semea zuen senarra, Pamplona'koa. Aien alaba emen izandu zen; ama nun jaio zen ikusi nai zuela, ta emen zortzi egun pasa zituen, onara etorrita. Baña ura emen izandu zela, badira berrogei eta bost urte bai.

Beste alaba, Errenteriko fabrika aundian ibiltzen zen, ta jendea erreparatzen

ta maixtra egoten zena; ta ura soltera il
zen Errenterin.

Bestea, senideetan gazteena, Juana Jo-
xepa, etxerako gelditu zena.»

Sei senideren berri eman digu; baña
batena falta, zazpi baitziran. Etzuan uste
Jose Manuelek besterik bazanik. Bearba-
da, gazterik illa-edo izango zan.

«BESTEK APLIKATU DIT...»

Len esan bezela, Errenteriko Baringarate-goikoa (Bainketa-goikoa) baserriko Euxebio Zabala'k ere, Anttoniyoren zenbait berri ta argibide eman digu; baita bi bertso-sail ere.

Euxebio, bizi dan baserrian jaioa da. Baita bere aita zana ere. Bere aitona, berriez, Bedaiotik etorria, bañan Baringarate-goikoa ortan bizitua. Baserri au ta Anttoniyorena, Altamugarri-erdikoa alegia, auzo-etxeak dira; auzo-etxeak bai, bañan mendi-baserrietan izan oi dan auzotasuna: ordu-laurden bateko bidea batetik bestera. Ala ere, artu-emanak maiz eta ugari alkarrekin.

Euxebiok etzuan Anttoniyo ezagutu; bai, ordea, bere aitak. Onek bertso zarra erruz omen zekian, bai Anttoniyorenak ere; ta semeak orain dakizkianak, aitari ikasiak.

Lenengo bost bertso auek, Anttoniyok neska bati-edo ezkongaietan jarriak omen dira. Oso gazterik jarriak, beraz; len esan

bezela, Anttoniyo ogei ta bi urte osatu gabe esposatu baitzan.

Onela esan zigun Euxebio Zabala'k:

«Anttoniyo Altamugarrikoa zegoen andregaiaren faltan, eta onela eman zion aditzera bere lagunen batek:

—Nik bazakit nun legoken iretzat moduko emakumea, neskatxa. Egin akiok bixita bat!

Anttoniyo joan zan, arrek esan zion bezela, bere bixita ori egitera, bere damatxo orrengana; eta ondorenean bertso auetxek Anttoniyok antolatu zizkan damatxo orreri:

1/ Bestek aplikatu dit
neronei andria,
zarra eta itxusiya,
juiziyoik gabia;
ortzak ere juanak,
alperra ta dongia,
ura ere nere gisa
arrote pobria.

2/ Bixita egin niyon
lengo arratsian,
ziyon aritzen zala
iñoiz ardatzian;
orduan lan aundirikan
etzeukala etxian,
etzanda egondu zan
denbora luzian.

3/ Emakumia, zaude
kristaban moduan,
juiziyoik baldin badezu
beintzat buruan;
artzaia ardi-kontu
dagan orduan,
olaxe egoten da
ziarka soruan.

4/ Gau artan argirik ere
pixtu etzenidazu,
aizeka lau txikortari
eman nioten su.
«Txantxetan edo alai
etorri al zeran zu,
jakin nai nuke eta
esan biar dirazu.»

5/ Illia urdindu eta
kolore oriyak,
atzaparrak motel eta
zankuak nagiyak;
xoxo bat ainbat badira
dam'orren begiyak,
gezur aundirikan gabe
esan ditut egiyak.»

* * *

Bertso auetatik iru, 2, 3 ta 4'garrena,
len ere bagenituan, Iturriotz'ko Robustia-

no Urkia'ren aotik jasota. Bañan bertsoak ez daude berdintsu, ta jarri egingo ditugu. Onela zion aurretik Robustiano onek:

«Neskagana joan ta neska zea xamar izaki. Ez dakit zeñek jarriak izango diran; mutillak jarriak ziran neskari. Oik badira dozen erdiren bat, baño nik aditu bakarrik egin baiditut:



2/ Bisitan izandu naiz
lengo arratsian,
aritzen zala ziyon
iñoiz ardatzian;
orduan gaiarikan
etzaukala etxian,
etzanda egondu zan
denbora luzian.

3/ Gaua artan etzuten
argirikan pixtu,
aizeka arraziak
lau txikortari su.
«Ziñetan eo txantxetan
etorri zeran zu,
jakin bear det eta
esan biar nazu.»

4/ Ibilli bear dezu
kristauen moduan,
baldin juiziorikan
badezu buruan;
artzaia dagonian
ardien kontuan,
olaxen egoten da
etzanta soruan.»

ARDIAI

Iru bertso auek ere, Anttoniyorenak omen dira, eta Euxebio Zabala orren aotik jasoak ditugu. Onela esan zigun:

«Garai aitan ere negua izaten, eta Anttoniyo orri ardiak egin zitzaizkan auldu; batzuak, danak ez noski, baño geienak. Eta pentsatu zuen bere artean, ardiai begira jarri ta nola bertsolaria baitzen:

—Nik bertsoak jarriko dizkietet ardia oiei!

Eta asmo orrekin onoko bertso auek atondu zituen Anttoniyo Altamugarrikoak, Ardotxen anaiak:



- 1/ Oraindik gaztia da:
bederatzi urte;
ibilpiria galdu,
zorrua ezin bete;
etzanta egoten da
alegindu arte,
gero belaunikoka
barkaziyo eske.

- 2/ Geiago ere baditut
orren modukoak,
ezurrez gizenak bañan
aragiz flakuak;
iñoiz tokatzen baira
pauso bi altuak,
amilka ta boteka
madarikatuak.

- 3/ Askotan egoten naiz
neregan pentsatzen,
ardiyak ez diratela
bererik ematen;
berririkan azi ez ta
lengo zarrak iltzen,
aurten bapo ari naiz
putriak mazkatzen.»

AMERIKETARA

Anttoniyo, famelia emen utzi ta Ameriketara joan zan, eta gero atzera etorri. Joan-etorri onezaz onela esan digu Jose Manuel Mendiburu'k:

«Semea lenago joana, ta gero semea-gana joan ori; ori Ameriketara alaba batekin joan.

Ta semea ogei ta bost milla aberekin arrapatu omen zuen.

Ameriketan orain ez dakit urte bete edo bi edo zer pasa zuen; semeak beñe-pein diru pixka bat eman ta pamilira biali.»

Batzuek diotenez, andrearekin aserretuta joan zan Anttoniyo Ameriketara. Gauzaren berri, Jose Manuel Mendiburu orrek jakin zezakean iñork baño obeto, len esan bezela Anttoniyo bere amagiarrebaren-edo aita baitzuan. Orregatik, andrearekin aserretuta edo nola joan zan galdetu genion, eta onela erantzun zigun:

«Ori ez jakin nik, bañan an izandu zela

bai. Beren purrustadak-eta ibiltzen omen zitu-zen; bera Errenterian errejidore-ta ibiltzen omen zen, ba, ta andrea etxean umee-kin.»

Ondoren onela jarraitu zuan Jose Manuel onek:

«Ura pamilira etorri zencan, pentsatu omen zuten emengo bezindadeak, Suan-tzan sagardotegia ta bear zutela ara joan eta saio bat egin bertso-tan; eta broma jarri bear zutela arratsalde batean.

Duro bat bota omen zuten *león-castilio*, eta Anttoniyori tokatu aurrena as-tea, ta arek orduan, ba, bota bertsoa:

Frailek ereiñ omen du
anea bat baba,
baliatuko zaio
urtabia bada;
zozuak eta beliak
joaten zaizka ara,
obe luke andre beltza
izugarri para.

Urrengoa Frailiaren txanda ta:

Adituak aditu,
ekusiak ez ekusi,
nere andre beltzakin
kontentu nak bizi;

andriak eta umiak
emen gosiak utzi,
eta i juan intzan
Amerikâ igesi.

Ta Anttoniyok, il egin bear zuela orduan Fraile ori, ta publikoak utzi ez.»

Bertso oiek obeto ulertuko dira, Errenteriko Baringarate-goikoa baserriko Euxebio Zabala'k dionarekin:

«Fraile orrek omen zuen, nik ez nuen ezagutu, oso andre itxusia: zea, beltza ta oso seriya, ñon parrik egingo etzuen.

Ta Anttoniyo ori, berriz, andrea polita arrek, baño aserretu andrearekin ta Ameriketara joan.»

Fraile, noski, izengoitia da. Iturralde baserrikoa zan. Errenteriko partean da. Altamugarritik ara, ogei bat minutu oñez.

Fraile onen berri, len ere emana degu: Auspoa 74-75, 67 orri-aldetik aurrea; bertso-pare au ere bertan publikatu genduan, 71 ta 72 orri-aldeetan. Bañan merezi zuten, guk uste, emen berriro jar-tzea.

Oso bertso ezagunak dira Errenteri ta Oiartzun aldean. Lenengoa berdintsu ematen dute danak; bigarrena ez. Bigarrena onela jaso genion Euxebio Zabala orri:

Adituak aditu,
ikusiak ikusi,
olako arrazoirik
ez nien merezi;
ni nere andre beltzakin
kontentu nak bizi,
bañan i juan intzan
Frantzira igesi.

Frantzira esaten da emen, bañan Ameriketara joan zan, len esan bezela.

* * *

Orain, bertso oien ondoren, obeto uler-tuko da urrengo gertaera au. Euxebio Zabalak'k kontatua degu:

«Altamugarriko bi auzoetan gertatutako gauza, Altamugarri-bekoa eta Altamugarri-erdikoa baserrietan.

Nola ziran auzoak, bizitzen ziran elkarrekin ondo; baño auzoen artean, umeak dirala, edo olloak dirala, edo ardiak dirala, asarreak ere tokatzen dira. Eta onoko kasua tokatu zen batean Altamugarriin:

Altamugarri-erdikoan nagusia zen Anttoniyo Bengoetxea, ta andrearekin aserretu eta Ameriketara joan zan andregandik igesi; baño aserrea ez da izaten betirako, eta, aserrea bukatu zenean, atze-

ra andreagana etorri zan ta elkarrekin bizitzen ziran.

Ta egun batean tokatu zitzaioten, olloakgatik edo ez dakit ardiengatik edo umeakgatik, zerbaitengatik aserretzea bi Altamugarri oietako etxeko andreak.

Baño aserretzea bakarra ez da aski izaten: aserretu ziran, beren sesio-aldia egin zuten, ta beren etxetara erretiratu ziran; bañan Altamugari-bekoa baserriko andrea etzan kontentu:

—Aserretu gaituk, baño nik bazekat zorra Joxepa Iñazirekin!

Iriña eskas taloak egiteko, eta joan zan batean Altamugarri-erdikora iriñaren billa, aber serbituko zuten iriñarekin, eskas zuela-ta. Ta Joxepa Iñazik eman zion bere iriña ari, ta eraman zuen; baño bueltan entregatu gabeak ziran oraindik.

Esan bezela, aserretu dira, beren sesio-aldia egin dute, baño Altamugarri-bekoko andrea etzegoen konforme bere iriña entregatu gabe. Eta pentsatu zuen:

—Ba! Nik zorra pagatu egin bear dît!

Eta Altamugarri-erdikora etorri zan, bere zaku oi artu buruan eta *ttaka-ttaka*, *ttaka-ttaka* ateondora, ta onela mintzatu zen:

—Abe Maria! Nun zera, Joxepa Iñazi?

Eta Joxepa Iñazik onela erantzun zion:

—Emen naz, emen! Zer nai zenuen?

—Onoko iriña au zurea da, ta jaso egidazu!

—Bai, bai! Jasoko dizut!

Joxepa Iñazik bere iriña jaso zion, eta Altamugarri-bekokoa bueltatu zen bere etxera; baño orduan Joxepa Iñazi, Altamugarri-erdiko Anttoniyoren andre ori, etzan kontentu gelditu:

—Orrek bere zorra pagatu dik, eta nik orreri zorra bazioat!

Altamugarri-erdikoak, ez dakit bere gisan edo eztabaidan autsita, zerbitzura zuten ekarria uztarria Altamugarri-bekotikan; eta, entregatu gabea baitzaukaten oraindik beren etxean, onela pentsatu zuen Joxepa Iñazik:

—Ba! Orrek entregatu zidak neri bere zor zidana, bere zor zidan iriña ori; eta nik ere uztarri oi entregatu egin bear zioat!

Eta Joxepa Iñazi, bere uztarri oi artu eta badijoa Altamugarri-bekora; buruan artu uztarria trabeska eta an dijoa.

Eta Anttoniyo leiotikan begira zegoen garai artan.

Jakiña, len esan dutena, Anttoniyo Ameriketara izandua zen andrearekin aserretuta lenago, ta orain etxera etorri ta

etxean bizi zen; baña emazteak oraindik gogoan zekan, Joxepa Iñazik gogoan zekan.

Anttoniyok onela deitu zion atzetik:

—Joxepa Iñaziii!!!

Bañan andreak etzion kasorik egin.

Bigarren txandan deitu dio:

—Joxepa Iñaziii!!!

Bañan andreak etzion kasorik egin.

Irugarren txandan deitu dio:

—Joxepa Iñaziii!!!

Irugarren deiean Joxepa Iñazi bere uztarriarekin jiratu da, bere uztarria buruan duela, ta erantzun zion bere senarrari:

—Zer daaa?

Anttoniyok:

—Nora zoaz?

Andreak buelta:

—Ameriketaraaa!!!

Eta Anttoniyo leiotik sartu zen barrera, eta Joxepa Iñazi bere uztarria entregatzera Altamugarri-bekora an joan zen.»

JUANA JOXEPA
BENGOETXEA OIARTZABAL
(1861 - 1943)

Len esan bezela, Anttoniyoren alaba gazteenaz, Juana Joxepaz alegia, zer kon-taturik badegu.

1861'eko Azaroaren 22'an jaio zan, eta, uste degunez, Altamugarri-erdikoan jaio ere. (1)

Bera izan zan etxerako gelditu zana. Jose Manuel Mendiburu'k len esan digu, Anttoniyoren seme-alabak zer egin zuten; bakoitzak nundik nora jo zuan alegia.

Juana Joxepa 1889'eko Apirillaren 23'an ezkondu zan. Gizon-gaia: Jose Frantzisko Petriarena Retegi. (2)

Jose Frantzisko au, 1860 urteko Uzta-ren 23'an jaioa zan, ta Xenpelarre base-rrian jaio ere, seguru aski. Aita, Xenpe-

(1) Errenteriko 14'garren bataio-liburuan, 72 orrian.

(2) Errenteriko 10'garren ezkontza-liburuan, 124 orrian.

larren anaia; ta aita-pontekoa, Xenpelar bertsolari aundia. (3)

Esan bezela, Altamugarri-erdikoan bizitu ziran.

Etzuten seme-alabarik izan, eta seme-alaba ordekoak kanpotik ekarri zituzten. Alaba ordeko ori, Lorentxa Etxaburu Urmeneta zeritzan. Abizenak naparrak izanagatik, aita bizkaitarra omen zuan; ta ezin mantendu-edo, ta Juana Joxepak-eta artu.

Lorentxa au gelditu zan etxerako, eta berarekin ezkondu zan, ainbeste argibide eman digun Jose Manuel Mendiburu ori.

Juana Joxepa, amaika arrua izatera iritxi omen zan; orregatik, Andre-Aundia esaten zioten.

Jose Frantzisko, 1925.IV.10'an il zan, arratsaldeko ordu bietan, Altamugarri-erdikoan, pulmoniaz, irurogei ta lau urterekin. (4)

Ta Juana Joxepa, berriz, 1943.IX.6'an il zan, arratsaldeko seiretan. (5)

Orain, urrena, Juana Joxeparen bi gertaera kontatuko ditugu.

(3) Errenteriko 14'garren bataio-liburuan.

(4) Errenteriko 14'garren eriotz-liburuan, 15 orrian.

(5) Errenteriko 15'garren eriotz-liburuan, 113 orrian.

GOROTZA ALA IRATZEA?

Lenengo gertaera au, Errenteriko Baringarate-goikoa baserriko Euxebio Zabalak kontatua:

«Altamugarrin, egun batean, gorotza-ateratzalleak ziran. Altamugarri-erdiko ortan zen gorotza-ateratze ori, Jauna Joxepa orren etxean; da juntatu ziran kua-drilla aundia.

Juana Joxepak bere lengusu zuen Epizkarko Joxe Antonio Oiartzabal; eta Joxe Antonio orreri nunbait gorotza iduritu zitzaion arin xamarra zela, ta esan zuen:

—Au gorotza al da? Iratzea duk au!

Ta baita Juana Joxepa edo Andre-Aundia orrek egin zuen aditu zer esan zuen Epizkar zarra itzaiak, Joxe Antoniok.

Ala, beren gorozketa ori egin dute urte artakoa. Eta berriz ere, jakiña, eguna joan, eguna joan, berealaxe etorri zaie berriz ere urte-muga gorotzak ateratzeko.

Enkargua egin bear berriz ere auzoko baserrietara gorotza ateratzera etortzeko,

eta Juana Joxepa edo Andre-Aundi orrek gogoan zeukan Epizkarrek egin zuen burla. Burla-edo, alegia etzela gorotza ura esan zuen Epizkarrek; ura etzela gorozketa, ura iratzea zela. Eta gogoan zekan Juana Joxepak, eta Epizkarrera enkargua ola bialdu zuen:

—Abixatu Epizkarkoai iratzea ateratzera etortzeko!

Ala, enkargu-egillea gazteren bat bialduko zuen Juana Joxepak Epizkarrera, ta onek esan zien Epizkarren:

—Altamugarri-erdikoan iratze-ateratzea dela eta iratze-ateratzera etortzeko biyar!

Bai Epizkar zarrak ere jan zuen:

—Aaaa!!! Au nik gorotza etzela, iratzea zela esan nian nik, eta andik ateratako mandamentua duk au! Bai? Ordainduko dît!

Epizkar zarrak zer egin zuen? Bere lanak utzi, aizkora artu ta basora joan zan, ta basotikan ekarri zuen biyurra. Orain gutxi egiten da; egurrarekin egiten ziran denbora batean sokak iratzea lotzeko.

Iratzeketa aik ala egiten baitziran, gorozketa bezela, auzoz; eta iratzea ekartzera zijoanak, joan bear izaten zuen bere soka edo bere biyurrekin; eta gorotza ateratzera zijoanak, bere saskiarekin. Jakiña, bere erremintakin. Eta:

—Ba! Iratzeketarako duk enkargu au, eta nik biyurrak egin bearko ditik! —esan zuen bere artean Epizkar zarrak.

Eta basora joan zen, bere aizkora artuta, eta billatu zituen biyurrak egiteko moduko egurrak. Ez dira nunai izaten oik; oik tartean-tartean izaten dira. Billatu zuen zama bat biyur-gai, eta ekarri zuen etxera.

Etxera ekarri, denak biyurtu eta jarri ditu bear bezela iratzeketarako; eta bere zama, zama-biyur ori artu bizkarrean eta patxara ederrean badijoa Altamugarri-erdikora.

An presentatu da, saskiaren partez bere biyur oikin iratzeketarako. Esan zion Juana Joxepa edo Andre-Aundi orrek:

—Zer? Biyurrekin etorri al az?

Ta:

—Bai! Nik iratzeketarako enkargua niñen!

Epizkarrek saskirik etzuen eramanean, da biyurrekin, gorotza lenago ariña zela baño biyurrekin ezin lotu gorotza; ura eramateko saskia bear.

Ortxe zabaldu dute eundalako ixtillua Juana Joxepak eta Epizkar zarrak. Eta Anttoniyok esan zuen:

—Bueno, bueno! Emen diskuido a izango da!

Anttoniyok tapatu zuen, Anttoniyo bertsolariak, Andre-Aundi orren aitak:

—Bueno, bueno! Emen aski da jaleo onekin! Emen izango dira beste saski batzuek, eta utzi itzazu biyur oik or!

Eta gero Epizkar zarrak ere an segitu zuen, besteak bezela, besteren tartean, bere gorozketan.»

* * *

Gorozketari buruz, berri auek eman dizkigu Jose Manuel Mendiburu'k:

«San Juan illean-edo, arto landarean, pagotxak-eta egin baño len izaten zen gorotza ateratze ori, eta gero afaria: zikiro bat edo arkume aundi bat edo bi il, eta jendea bildu; eta arratsean tobera jo ta kantatu ta broma ederra denak pasa.

Jornalik etzen izaten, dena auzo-lan. Egun batean bat egin, eta bestean bestea; eta abixoak eman elkarri. Ola izaten zen.»

ESPONJAK

Beste gertaera au ere, Errenteriko Baringarate-goikoa baserriko Euxebio Zabala'k kontatua.

«Altamugarri-erdikoan gertatutako kaso polit bat.

Errenteritikan atera ziran iru apaiz jaun: bikario jauna, Don Frantzisko; eta beste bi apaiza, bat Don Pedro eta bestea Don Santiago.

Atera ziran erritik, eta egualdi ederra zegoela ta egin bear zutela buelta bat Errenteriko baserri ziran urrutienetan barrena.

Ala, bueltaka-bueltaka-bueltaka ibillita, allegatu dira Altamugarrira. Altamugarri-erdi ortako etxeko andreak Juana Joxepa zuen izena; Anttoniyo bertsolariaren alaba zen, eta bera ere bertsolari gisekoa izan, bertsolari-tipokoa izan.

Bazakiten apaizak ondo asko bera ere txaskoak egiten zituen edo txisteak ateratzen zituen olakoa zela, eta pentsatu zuten beren artean:

—Pixka bat toriatu bear diagu!

—Ta, zer esango zioagu orain orri?

—Orrek gure zerbait eskeñiko ziguk, eta zer eskatuko zioagu?

—Esponja eta ura eskatu bear zioagu!

—Bai! Orixe egingo zioagu!

Orrela itzegin zuten elkarren artean iru apaizak, eta konforme denak.

Jo diote atea Juana Joxepa edo Andre-Aundi orreri: *Dan! Dan! Dan!*

Badator Juana Joxepa ori. Etzakien arrek apaizak ziran edo beste norbait zen. Etorri da ateondora ta an arkitu ditu iru apaiza uste gabeen atearen aurrean.

Da, iru apaiz ikusi dituenean, jakiña, arritzekoa ez da baserriko emakume bat edo gizaseme bat, iru apaiza ateondoan ikusita, pixka bat sustatzea edo pixka bat izutzea. Aik ikusi dituenean, ala jarri zen emakume ori, ta esan zien apaiza oieri:

—Oi! Beok al ziran?

—Bai! Gu gera, gu!

—Pasa bitez, pasa bitez aurrera!

Ala, atea ireki zien da sartu ziran apaiz oik aurrera. Joan ziran barrena, eta Juana Joxepa orrek, Andre-Aundi orrek, galdetu zioten:

—Zer artuko luteke, ba, orain beok?

Arek kunplitu egin nai zuen apaiz jaun oiekin. Da apaizak bazakiten seguru asko an etzela esponjarik izango.

Esponja jakingo dezute noski zer den denak: ura gozatzeko azukre-gisako olako gauz bat, zea luze bat.

Eta apaizak esan zioten Juana Joxepari:

—Egarriak gaude ta esponja ta ura artuko genduke guk geren gustorako.

Ta Juana Joxepak onela esan zien:

—Bai, bai, bai! Pasa, pasa onera! Pasa aurrera!

Pasa ditu, ba, aurrera, salara, Juana Joxepa orrek, eta, an zekan mai batean, jarri dizkate sillak eta mai artan exerita jarri ditu irurak:

—Exeri bitez, exeri bitez emen!

Iru apaiz oiek jarri dira exerita, ta Joana Joxepa joan da andikan.

Etorri zen serbilleta edo bere zapi batekin, ta mai-gaña igurtzi zioten. Bere maia igurtzi ta Juana Joxepa atzera joan da.

Apaizak onela zioten elkarren artean:

—Zer egin bearko ziguk gaur guri orrek?

Juana Joxepa, berriz, berriro an dator iru baso aundirekin. Iru baso aundi eka-

rri zituen eta irurei bana jarri diote aurrean. Baso oik utzi ta berriz ere Juana Joxepa, Andre-Aundi ori, joan da.

—Zer egin bear ote ziguk? —berriz ere apaizak zioten elkarri—. Zerbait ere egin naiko ziguk guri orrek!

Bai baitzekiten esponjarik etzala izango an.

Juana Joxepa orrek egin du jarro bat artu ta bere jarroarekin iturrira; iturriko uraren billa joan zen. Bide puska bat bazuen, baño etzuen biajeak izutu.

Joan zen iturrira, ta bere kristalezko jarro eder batean ekarri zuen iturriko ura, ta iru apaiz jaun oieri bete dizkate basoak: *ra! ra! ra!*

Jarroa, sobratu zan urarekin, bazterrean utzi zioten, geiago nai bazuten ere; eta berriz ere Juana Joxepa orrek mar-txa egin zuen. Da apaizak elkarri esan zioten:

—Orain ere norabaitera joan duk!

Urrengo bueltan etorri zen iru kutxarillarekin; iru kutxarilla ekarri zituen ta sartu zizkan baso banai iru apaizei, ba-koitzari kutxarilla bana, ta alde egin diote.

Apaizak an zeuden beren basoak aurrean, kutxarillak ere bai baso barre-nean, baño esponja falta.

Ta Juana Joxepa orrek, Andre-Aundi orrek, urrengo kolpea ganbarara egin zuen; eskallerak betik gora ganbarara igo zan, eta apaizak esan zioten elkarri:

—Ganbarara zia! Or izango ditik esponjak!

Ta, ala, an zauden apaiz oik.

Juana Joxepa ori joan zen ganbarara, ta iru artaburu, ederrenak iduritu zitzaizkanak, artu zituen. Ta kirkildu esaten diogu guk, kirkildu, alea kendu zioten eta txikorta utsa gelditzen da gero. Bartzuek txikorta esaten diote, besteak lokotsa; ta esponjaren gisekoa da kolorez eta bueloz txikorta edo lokots ori.

Ta iru txikorta oik artu eta etorri da eskallerak goitik bera, eta sartu dizkate bakoitzari *zarta! zarta! zarta!*, beren basoetan bana, eta esan zioten:

—Edan orain, motillak! Baserriko esponjak oitxek dituk!»

BEKOETXIA

Manuel Maria Olaziregi Iribarren
(1824 - 1904)

BEKOETXIA BERTSOLARIA

MANUEL MARIA
OLAZIREGUI IRIBARREN
(1824 - 1904)

Bekoetxia izengoitia zuan bertsolaria ere izandu zan garai batean Oiartzunen.

Bekoetxia baserria da, bertsolari ori bizitu zan etxea. Iturriotz ballaran dago, Saroe errekan. Etxe orren gaurko egoera onela aditzera eman digute:

«Iñor gabe dago aspaldiko urteetan. Tellatuak, geienak eroriak; paretak ere erorixeak; larrak artuta dena. Errekaren kontra-kontran dago, euriarekin ura pixka bat altxatzen bada, barrena sartzen zaiola.» (1)

Baserri orri Bekoetxia esaten zion erriak; bañan eliz-agirietan Saroe-Fernando eta Saroe-bekoa esaten zaio. Erriko-etxera ere galdetu degu bada-ezpada ere, ta baietz esan digute: paperetan modu

(1) Koxme Mitxelena, Karrika'ko Lekungarai baserrikoa, gaur Errenterin bizi dana.

batera eta erriak bestera esanagatik, baserri bera dala.

Bekoetxia bertsolariak izen-deiturak nola zituan, beraren billobak esan digu. Bertsolari orren seme baten semea, Ramon Olaziregi, Errenterin bizi baita, Olaziregi-enea etxean, irurogei ta amabost urterekin.

Bere aitona Manuel Maria Olaziregi zala esan zigun, eta noiztsu il zan ere bai: bera ume koskorra zala, bost bat urtekoa.

Urrengo saioa Oiartzungo eliz-artxiboan egin genduan. Eriotz-agiria berealaxe azaldu zitzaigun: 1904'eko Maiatzaren 6'an ilzan, larogei urterekin, Sarobekoa baserrian. (2)

Urrena, bataiokoa billatu nai genduan. Arretaz eta bein da bitan saiatuak gera, bañan Bekoetxiaren bataio-agiririk ez degu Oiartzungo eliz-artxiboan arkitu.

Senide-pilla ederra bai, agertu da: Maria Josefa Joakina, 1811.IV.28'an jaioa; Josefa Ramona, 1812.VI.2'an; Pedro Ramon, 1813.XI.15'an; Martin Jose, 1815.V.4'an; Josefa Teresa, 1817.III.11'an; Jose Esteban Maria, 1819.XII.25'an. (3).

(2) Oiartzungo 15'garren eriotz-liburuan, 22 orrian.

(3) Oiartzungo 12'garren bataio-liburuan, 202 orrian, ta 13 'garren bataio-liburuan, 5, 16, 31, 51 ta 78 orrietan.

Gurasoak: Sebastian Olaziregi ta Maria Josefa Iribarren. Aiton-amonak, aitaren aiekatik: Sebastian ta Ana Maria Portu; amaren aiekatik: Tomas ta Maria Franziska Retegi. Dan-danak, oiartzuarrak.

Aitaren aldeko amonari, agiri batzuetan Portu, bestetan del Puerto, ta batean Portugal esaten diote.

Bañan, zergatik ez ote da azaldu bertsolari onen bataio-agiria Oiartzunen? Edo, beste nun ote da?

Bearbada, *guerra realista* esaten zaionagatik izango da. Gerra ori 1822 urtean asi ta 1823'an bukatu zan. Andik amar urtera karlistak bezela, aldi artan realistik esaten ziranak jo zuten mendira.

1823'eko Apirillaren 7'an, *los cien mil hijos de San Luis* esanda ezagutzen diranak, frantzes soldatu-talde aundixko bat alegia, Bidasoaren alde batetik bestera pasa zan.

Andik bi egunera, realistik Oiartzunen jarri zuten beren gobernu-etxea. Frantzesak, berriz, Pasaia ta Ondarrabia berealaxe artu zituzten. Apirillaren 18'an Getarian sartu ziran; Maiatzaren 24'an, Madriden; da Urriaren 1'an Cádiz'en.

Donostiko erriak, berriz, etzuan amor eman Agorraren 27'garrena arte; egun

orretan tratuetan asi, ta Urriaren 3'an frantzesak bertan sartu. (4)

Onek esan nai du, XIX'garren mendean ainbeste alditan bezela, orduan ere gerrak gure bazter auek su ta gar jarriak zituela. Bitartean, gure baserrietako pameliak al zuten bezela biziko ziran.

Ain zuzen, Bekoetxia bertsolaria garai orretantxe jaioa izango zan. Il zanean, 1904.V.6'an, larogei urte baldin bazituan, 1824'an jaioa izango zan. Bañan bazitekean larogei urte ta zenbait illabeterekin iltzea; beraz, aren jaioteguna 1823 urtean ere gerta zitekean. Ta, gerragatik Oiartzungo bidea trabaturik-edo egonda, umea auzo-erriren batera eramango zuten bataiatzera.

Ori bera gertatu zan Xenpelarrekin: Errenterin-edo jaio ta Oiartzunen bataiatu; baita ere Kaskazurirekin: Oiartzunen jaio ta Errenterin bataiatu; baita ere Saibururekin: Ernanin jaio ta Aranon bataiatu.

Beraz, Bekoetxiaren bataio-agiria, Oiartzungo auzo-errietan billatu bear litzake. Bañan zein erritara eraman zuten ez dakigu. Zein baserritan jaio zan ere ez; ta, orregatik, zein erri zuten erosoena aurra eramateko ere ez. Orrezaz gañera, Oiar-

(4) Antonio Arrue: "El bertsolari Bordel en el castillo donostiarra (1823)", San Sebastián, 1971.

tzunek auzo-erri asko du. Gauzak ala izanik, denbora asko bear litzake, ta utzi egin degu.

Esan bezela, bataio-agirietan ez da esaten zein etxetan bizi zan pameli ura. Bañan Bekoetxia au, senideetan gazteenetako bat izanik, eta bearbada gazteena, etzan etxerako gelditu zana izango. Ta, ala, Bekoetxia baserrian etorkiña izango zan. Ezkondu ere, bera baño zortzi urte zarragoko emakume batekin ezkondu zan. Onek ere, nik uste, gauza bera adierazten du.

Bekoetxiaren emaztea, Manuela Joakina Mitxelena Bengoetxea zeritzan; Oiartzungo alaba zan, ta 1849'eko Ilbeltzaren 22'an ezkondu ziran. (5)

Ezkontza-agirian ez dira esaten ezkongaien urteak. Andrea zortzi bat urtez zarragoa zala, aren eriotz-agiritik somatu degu.

Oiartzungo bataio-agirietan, lau seme-alaba izan zituztela arkitu degu: Jose Manuel, 1849.XI.18'an jaioa; Maria Josefa, 1852.VII.11'an; Pedro Mari, 1854.X.24'an; eta Maria Karmen Justa, 1857.V.28'an. (6)

(5) Oiartzungo 10'garren ezkontza-liburuan, 175 orrian.

(6) Oiartzungo 15'garren bataio-liburuan, 176 ta 225 orrietan, ta 16'garren bataio-liburuan, 8 ta 64 orrietan.

Bekoetxiaren andrea 1896'eko Uztaillaren 5'an il zan, larogei urterekin, arratsaldeko lauretan, Saroe-Fernando baserrian, «*por catarro pulmonar*», eriotz agiriak dionez. (7)

Ta Bekoetxia bertsolaria andik zortzi urtera il zan, 1904'eko Maiatzaren 6'an goizeko iruretan, larogei urterekin, Saroe-bekoa baserrian, «*a consecuencia de enteritis*», eriotz-agiriak dionez. (8)

Bekoetxiaren bertso bat edo beste arkitu degu, bañan gutxi; ez guk nai aña beintzat. Izan ere, alde batetik, urte asko ura mundu ontatik joan zala; eta, bestetik, ez dirudi bertsorik paperetan jarri zuanik. Ez daukagu, beraz, zer arriturik, arenik bertso gutxi iritxi bada gureganaño.

Ta, bizitu zan urteai begiratuta, aren bertso-lagunak Larraburu, Ardotx, Xenpelar, Patxi Bakallo, Eperra, Fraile, Bordondo, Panderi ta abar izango ziran. Oiartzun ingurukoak aitatu ditugu bakarrik. Ez baitegu aditu erririk-erri ibiltzen zanik; Goiuetara-edo bai, baño besterik ez.

(7) Oiartzungo 14'garren eriotz-liburuan, 45 orrian.

(8) Oiartzungo 15'garren eriotz-liburuan, 22 orrian.

EZAGUTU ZUTENAK DIOTENA

Irurogei ta amar urte badira, Bekoetxia bertsolaria mundu ontatik joan zala. Ala ere arkitu degu, ura begiz ezagutu zuanik: Jose Manuel Mendiburu ta Ramon Olaziregi.

Jose Manuel Mendiburu ori oiartzuerra da, larogei ta bat urtekoa, Iturriotz ballarako Arbide baserrian jaioa, bañan Errenteriko Altamugarri-erdikoan bizidana. Onela esan digu:

«Bai, ezagutu nuen Bekoetxia zarra. Aren semeak eta aren illobak ere ezagutu nituen.

Zortzi egun-ta, etxetik joan mezetara ta etxera gabe pasatzen zituen. Gu, mutil koskorrak, or ibiltzen giñan ardiakin, aitonarekin-da ibiltzen giñan. Emen lenago etxero bastante izaten zen ardia. Ta, bein batez, ura, Bekoetxia, ongi gogoan daukat, bidean zialdo egiten ta zubia olamear-mear bat izaki, ta korrika nola pasa zuen.

Aren bertsoak gure aitonak bai, baze-

kizkien. Gu ere aitonarekin emen aritzen giñan, ba, lanean, ta, egualdi txarrak ematen zuenean, orduan kantatzen.

Bekoetxia ori ibiltzen omen zen emen, Gabonetan-ta, eskean. Ta Arraldeko ortan emakume ola bertsoan zekiena, bertsolaria. Oraindik nik sonatu deten emakumerik irrintzilaririk ederrena. Guk osaba genduen aren anaia.

Orduan kriselluak izaten ziran, olioarekin, lumerarekin argi egiten zutenak; eta ura eskalleratik txintxilik jarri, eta asi eskalleraren mallan exerita bertsoan, ta bertan eguna zabaldu. Batek kanpotik eta besteak barrendik bertsoak. Makiña bat botako zuten! Denbora baten dena bertsolari izaten zen!»

* * *

Bestea, Ramon Olaziregi, len ere aita-tu degu. Bekoetxia bertsolariaren semearen semea da, irurogei ta amabost urtekoa, ta Bekoetxia baserrian jaioa.

Ramon onek bere aitonaren gauza asko eman digu: bertsoak, gertaerak, eta bizitzaren eta pameliaren zenbait berri ere bai. Auek esango ditugu orain, bertsoak eta gertaerak gerorako utzirik.

Pamelitik asiko gera. Len ere esan degu, bi seme eta bi alaba izan zituala Be-

koetxia bertsolariak. Semeetan gazteenak, Pedro Mari izena. Pedro Mari orrezaz onela esan digu Bekoetxiaren billobak:

«Ni adituta nagoenez, gure aitak bazuen beste anai bat.

Aurreko gerra-denboran, Santa Cruz'en gerra-denboran, ibiltzen ziran gure aita eta aitona, biak, espia bezela. Gure aita, etxerako izendatua baitzan ura, etxetik ibiltzen zan espia bezela.

Beste anaia, berriz, ibiltzen zen frentean Santa Cruz'ekin berarekin; beraren mutilla frentean ibiltzen zen.

Gerra guzia ala bukatu, ta, Santa Cruz Frantzira joan zanean, batzuek egin ziralara onera etorri, mutil batzuek; eta beste batzuek esan zuten:

—*Ya que*-ta gerran asi geran, gerran bukatu bear diagu! Cuba'ra joango gaituk, eta, an irabazten badiagu, etorriko gaituk!

Ta Cuba'ra joan zela gure aitaren anai ori, ta etzala geiago etorri.» (1)

* * *

(1) Bekoetxia au aitatzen da Santa Cruz'en bizitza-liburuan. 1872'eko Agoztuak 30 omen zituan. Onela dio: "Habíamos colocado centinelas: por la parte de Aranaz a Luxia, y por la parte de Goizuetta a Bekoitxe..." Ta ez litzake batere arritzekoa, aitamen geiago izatea. (Juan de Olazabal y Ramery: *El Cura Santa Cruz guerrillero*, Vitoria, 1928, 33 orri-aldean.)

Ta bere aitonaren jazkeraz onela esan digu Bekoetxiaren billoba orrek:

«Jeneralean aren jazkera omen ziran galtza urdiñak edo *mahón* edo olakoak, bere abarkak, txapela buruan eta makil bat eskuan.

Soñean elastiko bat. Frantziko elastiko batzuek ziran, idikiak, aurrean botoi batzuekin, beren bolsilluakin. Gure aitona zana kontrabanduan-edo aurretikan giari ibiltzen omen zan, ta andik kontrabanduan ekarria izaten omen zuen.

Ta, elastikoaren gañetik, brusa beltza ibiltzen omen zuen jeneralean.

Naiz ferira etortzen zanean, naiz edozein lekutara joaten zanean, etxetik ateratzen zanean ura ibiltzen zuen, elastiko ura. Etxean ere bai askotan, pixka bat zartxeagoa edo alakoa, lanean aritzen zanean.

Txaketik ez nion sekula ikusi izandu; beti bruxa, azpitik elastiko ura zuela, edo bere alkandorarekin bakarrik.»

* * *

Iru toki izaten omen zituan Bekoetxiak, bertsoarako: mendiko bentak edo kantinak, urtean bein edo bitan; Oiartzungo tabernak, peri-egunetan; eta etxea. Billobak onela esan digu:

«Gure aitona zana orrek, esaten zute-
nez, egiten omen zuen urtean ateraldi bat
edo bi, etxeko lanak menderatzen zitue-
nean. Mendian tabernak edo bentak iza-
ten ziran garai artan, da kantina txiki
oietara joaten zan. Aietan pasatzen zi-
tuen sei bat egun. Orduan, egun aietan,
bertso asko kantatzen omen zuen. Bere
zea guzia ori izaten zuen. Ixildu ere ga-
be aritzen omen zan.

Oiartzunen, astelenetan, peria izaten
zan. Etzan beti etorriko, baño askotan
beintzat perira etortzen zan astelena oie-
tan; eta tabernan sartu ta bertsoak. Ber-
tsorik kantatu gabe etzan ura etxera eto-
rriko.

Ta gero etxean; lanean ari zala, arta-
jorran edo zean, beti bere modura kanta-
ri aritzen zen.

Ni gogoratzen naz: ni mutil koxkorra;
nik bost urte orduan; eta juxtu-juxtu go-
goratzen naz ura nola aritzen zen beti
kantari, ta nola zen gizon mozkote zabal
bat.

Arpegi gorria zuela dakat nik buruan.
Nola izaten dira aiton muxu-gorriak? Ola
gorria zuela. Ura, ia kasik il arteraño,
beti nik fuerte ta zea ezagutu nuen.

Ta gogoratzen naz, ni besoan edo be-
launaren gañean artu ta nola aritzen zen
kantari.»

ZENBAIT BERTSO

Oiartzungo Lekungarai baserrian jaio ta gaur Errenteriko kalean bizi dan Koxme Mitxelena'k onela esan digu:

«Bekoetxia orrek ez dakit izena nola zuen, baño fumatzallea izaki, pipa-artzallea, ta toxa ibiltzen omen zuen txaketa-
ren portsilluan; eta batenbatek, Iturrioz-
zen tabernan zaudela, toxa kendu ta sa-
terra sartu zean, portsilluan, eta Be-
koetxiak bertsoa bota:

Zurrut-ttintta bat egin det bañan
ez nago oraindik mozkorra,
neri par edo burl'în nai dîna
barrena ontan asko da;
lenagoztikan sentitzen nuen
bultua edo koskorra,
nor demoniñok sartu ote dit
portsillu ontan satorra?

Gero, etxera zijoala, Anatxuritik aurre-
ra joanta, zeatu bidean: anakak-edo falla-
tu. Alako bidea da, izan ere, ura, esaten
zuten tokian erori bazen. Orain piñua

dago ta zakarrakin-ta defenditua, bañan orduan ez. Bidexiorretik, estrapozoren bat eginta, goitik bera amilka joan beko errekarano, ta orduan:

Tonto samarra banitzan ere
ez naiz askorik abildu,
anka biretik bera juanda
iñola ezin det bildu;
estrapozo bat egin det eta
erroitzak bera amildu,
panparroi xamar banitzan ere
orra ederki umildu.»

* * *

Satorraren bertso ta gertaera oiek adi-
tutakoan, argibide auek eman zizkigun,
Oiartzunen jaio ta Zubietan bizi dan
Frantzisko Aranburu apaiz jaunak:

«Satorra izaten zen, ba, toxa-gaia. Sa-
torra erditik idiki, tripa idiki; mutur-al-
dea moztu, eta barrena tabakoarentzat.

Tabakoa etxean egiten zuten, arta-so-
roan, galerazia baitzegoen, ba. Arta-so-
roan, karabineroak ez ikustearren, utsu-
ne bat egin, eta an tabakoa egiten zuten.

Gero, etxean, ganbaran moztu landa-
rearen kimu edo emaitzak; egur-mallua-
rekin jo-jo egin da ganbaran legortu itza-
lean.

Gero, illunabarrero, edo maizago ala

bear izatera, aizkora txorrotx batekin txikitzen zuten urrengo eguneko erre-gaia, ta toxa betea geratzen zan.

Toxa au nola eratu? Lenago esan bezela, satorra bururen-buru ebaki, bi muturrak lotu, ta geratzen zan zoko-unea, toxa-leku edo tabako-leku.

Gero, erdiko aldean, toxa orren alde bati soka-mutur bat lotzen zioten; ta soka-mutur orreri altzairu-burni xapaldutako bat ipiñi.

Gero, burni orrekin eta karaitz-arriarekin, metxa arri gañean jarrita, su-izpia ateratzen zuten, metxak su artu zezan. Ta metxa arrekin pipa piztu.

Toxa ta pipa ta danak, buruko txapel barruan eramaten zituzten. Gure aitonak beintzat ala eramaten zituen. Ori da toxaren istoria. Toxa biribilla izaten zen.»

* * *

Ta Bekoetxiaren billobak, Ramon Olaziregi'k, onela esan digu:

«Gure aitona zana ori, jeneralean edo ia igandero, goizeko bostetako mezara Oiartzuna etortzen zan. Jakiña, goizeko meza entzun ta gero bere gosari txikia-edo egiten zuen; eta zazpiak aldera edo zortziak aldera etxera joaten zen.

Etxera joaten zen, baño urtean bein,

bere lanak aurreratzean, baserriko lanak aurreratzen zituenean, egiten omen zuen parrandatxo bat. Jeneralcan, igandean atera ta urrengo larunbaterako etxera alle-gatzen omen zan.

Aste guzia beti bentetan edo baserri-tabernetan pasatzen omen zuen; emen-dikan, Oiartzundik, Goizueta aiekara arte, Lesaka aiekara arte, Oiartzundik Ernaniko buelta artan, Donostira ta olako lekutara joan gabetanik ibiltzen omen zan.

Bein batez, ola zabilleta, orain ez dakit nik edo Portugaldik edo Bainketatik ateria zen; tabernatik atera ta an beintzat besteren bat ere izango zuen berekin laguna, eta bertsoan asi omen ziran da esan omen zuen:

—Bai, badik orrenbeste egun etxera azaldu ez naizela!

Ta bertsoan esan omen zuen:

Nagon lekutik ageri dira
iru Bainketa ta Aldura, (1)
onezkero esan dute
Bekoetxia galdu da...»

* * *

(1) Iru baserri dira, Errenteriko partean. Bainketa edo Baringarate izenarekin: goikoa, bekoa ta erdikoa.

Bekoetxiaren illobak, Ramon Olaziregi'k, etzekian ortik aurrerakoa; bertso osoa, itzak ere zerbait aldatuaz, Lekungarai'ko Koxme Mitxelena'k eman digu:

«Altamuarriko iru etxiak, (2)
Epizkar eta Aldura,
gauza obeto disponitzeko
denbora orain eldu da.
Nai duenak e eju ein zala
«Bekoetxe zarra galdu da!»
Andrian mende dagon gizonak
maiz izango dik malura!»

* * *

Onoko beste bertso au Bekoetxiaren billobak, Ramon Olaziregi'k, emana degu:

«Or, Goizuetan, bertсотara-edo joanak ziran. Gizon argal xamarra eta euntalako bertso ona bota bestea, oso bertso ona; eta gure aiton orrek, jarri omen zen begira-begira ta au kantatu zion:

Zer diabru dirate
au neri ekarri,
nere animaren
kondenagarri?
Illepian eztu
larrurik agiri,

(2) Iru Altamugarri dira: goi'koa, bekoa ta erdi-koa; auek ere, Erreteriko partean.

larruan barrenian ez ditu
ontza bi aragi;
errekan dek sarri;
landan para leiteke
txori-izugarri.»

* * *

Beste gertaera au ere Bekoetxiaren bilobak emana:

«Gure aitona zan oi, etzan askotan etortzen garai oietan, baño goizeko amaiketan eldu omen zen Oiartzungo plazatik etxe aldera igande batez. Jeneralean, ura zazpiretarako pasatzen omen zen etxe aita-tik; Oiartzabal iru baserri dira, arek pasa bear zuen lekuan.

Iru oietan ez dakit nik zein, aitako bategan bizi ziran iru aizpa, irurak edadean pixka bat pasiak, eta gure aiton orri beti toriatzen aritzen ziranak.

Esan omen zioten:

—Zer? Gaur orren berandu joateko zer dezu?

Ta:

—Zer duten? Bai, egin bear batzuk izan ditut, eta... plakiak ementxe nijoa! Naia-go nuke salda emango bazenduteke!

—Emanen dizugu, ba! Igo zaite gora!

Igo zen gora, da ola, salda emateko moduan, erreparatu zen aiton oi:

—A! Burruntzali orrek txuluak dizkik!

Ta, ain zuzen, iru neskazar ta iru txulo burruntzaliak; txikiak baño pasa egiten. Ta aren gañean bertsoak jarri omen zituen, iru edo lau bertso jarri. Ez ola publikatuak paperetan ta ezer ere; berak jarri ta zakitenak baziran garai aietan.

Oik nik, bertso oik, aditu izan ditut, baño Oiartzunen sagardotegian, zarrak kantatuta: arek nola bota izan zituen iru bertso, ta nola neska oiei geiago toriatzeko gogoak kendu zizkioten. Beti toriatzen ibilli bear aiton orreri. Arrunt txistosoan izan bear zuen bestela ere.»

* * *

Onoko bertso au, edo bertso-puska, Be-koetxiarena omen da. Errenteriko Baringarate-goikoa baserriko Euxebio Babala'ri zor diogu:

«Andik onuntzian,
Sastarran,
musian aitu zian
amabi erregian;
bertako alabak ere
an zian mayian,
danak umore onez
gure konpañian.»

* * *

Beste au ere, Bekoetxiaren billobak kontatua:

«Gure aitona ta oik etziran beti eiztariak, baño ibiltzen ziran batzutan eiztariak laguntzen.

Auzoko Aldura, guardamontea zan Oiarzunen; eta Erbiti, Errenteriko guardamontea.

Oiekin batera juntatu egiten zan ura ere, gure aitona, basurdetan edo erbitan, ta, zeozer arrapatzen zutenean, batzutan jan-aldiak egiten zituzten.

Ta Erbiti ori arrunt nabarmena izan bear zuen; apetitu aundikoa ta nabarmena izan bear zuen oso jaten. Ateratzen ziranak, azaldu ordu, barrena pasiak arek.

Gure aiton ori, batean, jarri omen zen begira, ta kantatu omen zion:

Naiz dela erbiya ta
igual dek axeri,
ire tripak ikusten dik
amaika mixeri;
ogi bat osua ar zak,
bein bēnik ase'di! (3)

Or puntu bat falta dela uste det, baño nik ez dakit geiago.

Orduan ogiak izaten ziran buelta aun-

(3) ase'di = ase adi.

dikoak, sei librako ogiak, eta izaten zituzten bueltan sei kozkor, da jeneralean ala egiten ziran partitu ere: lenengo, kozkor aik bueltan kendu, eta gero egiten zituzten, zenbat lagun ziran, ainbeste puska. Bañan, lenbiziko, kozkor aiek bueltakoak kentzen ziran. Goxoagoak, opillak zirala-koan-edo, goxoagoak idurituko zitzaizkio-ten nunbait ere. Ala egiten zuten.»

* * *

Urrengo bertsoa ere, Bekoetxiaren billobaren aotik jaso:

«Askotan, ola sagardotegian-da aritzen giñalarik, esaten zuten gure aitonaren bertsoa zala, ta guk kantatzen genduen askotan bertso ori. Au da bertsoa:

Batzuek ezkondu ziran,
bestiak ezkongai,
ni ere ementxe nago
txanda etorri-zai;
baditut bost arreba,
geranak lau anai,
bederatzi senide,
galda zazue nonai;
igual zait artzai,
apaiz edo itzai,
mutilzar ere bai,
bañan andrian mende
ez det egon nai.

Baño nola ez baitzituen arek bederatzi senide, orregatikan ez det uste nik arena danik; baño batzuek esaten dute baietz, arena dala.»

* * *

Ta beste bertso au, berriz, Bekoetxiaren billoba orrek berak emana:

«Badu beste bertso bat ere; orain ez dakit gogoratuko naizen.

Astelena, Oiartzunen peria, edo ez dakit zer izango zen. Bertsotan ari ziran.

Eta Don Felix Mitxelena medikua, Oiartzungoa, parra-ta aiton orreri or aritzen zen. Batek au ta besteak ura, bertso botzen omen zioten, da beintzat ildako persona batengatik zer edo zer esan.

Da gure aiton orrek kontestazioa bertsotan :

Ildako personarik
ez autara ekarri,
gauza partikularra
izaiñen dek ori;
gogoratzian errezatu
iru abe mari,
anima gaxua
sokorra al baleri.

Don Felix Mitxelena'k aditu ta:

—Oi da bertsoa, oi! Ildako persona ondo dago! Ez, ura ez da nolana aitatu bear! Oi da bertsoa!

Ta merienda ateratzeko aren kontura gure aiton orrentzat.»

* * *

Don Felix Mitxelena Oiartzungo medikua zana, orain baño len aitatu izan degu: *Kaskazuri bertsolaria* liburuan, Auspoa 114, 35 orri-aldean. Orain, berriz, Ramon Olaziregi orrek, aren aitamena berriro egin digu, bere aitonaren bertso ta gertaera oiek emanik; baita zerbait geiago kontatu ere:

«Don Felix Mitxelena, Oiartzungo mediku zana, izugarri ona zan. Fama aundia zuen.

Bera, bere jenioz, bizia edo ola zan, baño erriak asko maite zuen; ta asko zakienna esaten zuten garai aitako mediku ura.

Oiartzunen bazen iturri bat; oraindik ere an dago iturri ura, edo orain dela urte batzuek beintzat an zegoen oraindik iturri ura. Iturri artan etortzen da udaran ura otz-otza, eta neguan, berriz, beroa.

Ta Don Felix orrek bialtzen zuen garai aitan, apetitua egiteko, andik ura ekar-

tzeko; ta ur ura edateko goizean baraurik esaten zuen. Ta, ala, askok edaten zuten baraurik ur ura, eta on egiten omen zioten.

Lenago zuen izena iturria arek Lekun-iturri, ta gero jarri zioten Don Felix iturri. Ainbesterañoko fama zuen Oiartzunen, eta gaurko egunean oraindik ala uste dut deitzen zaiola arri: Don Felix iturri.

Arek beste kaso bat ere bazuen, beste askoren artean:

Oiartzungo baserritar bateri, emakume bateri, il omen zitzaizkan bost seme-alaba. Orain ez dakit bost seme-alaba oik lenbizi il zitzaizkan eta gero gizona, edo gizona il da gero bost seme-alabak, edo gizona tartean il zan. Nola izan ziran ez dakit, baño beti Don Felix Mitxelena'rekin denak il omen ziran.

Eta beti aditzen omen zion emakume orreri esaten:

—Jaungoikoak salba gaitzala aundia-gotik! Jaungoikoak libra gaitzala aundia-gotik!

Emakume orrek ala esaten omen zuen beti, ta, koñe, beti arritu egiten mediku ori:

—Orixe emakumearen zea!

Ta, atzenekoa il zitzaionean, orain ez

dakit gizona edo semea, atzenekoa il ziztaionean, esan zuen berriz:

—Jaungoikoak libra gaitzala aundiagotik!

Eta Don Felix orrek orduan:

—Zer karajo bear dezu, ba, aundiagoa, emakumea? Zer bear dezu aundiagoa?

Ta:

—Bai, Jauna! Bada aundiagoa!

—Zer dezu aundiagoa? Sei gorputz bialli dituzu etxetik, eta zer bear dezu aundiagoa?

Ta esan omen zion:

—Juizioa galtzea! Entendimentua galtzea! Neretzako ori da kristauak duen desgrazirik aundiena!

Ta Don Felix Mitxelena'k esaten omen zuen beti: Iñori ere iñon etziola alako arrazoirik aditu! Arrituta utzi zuela.»

BERTSO JARTZEA

Bertsoak jarri ta paperetan zabaldu ote zituan iñoiz Bekoetxia bertsolariak? Galdeera ori ere egin diogu billobari, Ramon Olaziregi'ri alegia, ta onela erantzun digu:

«Gure aitona zana orrek ere, berak etzuen oiturikan bertsoak jartzeko; baño batek eta besteak, jakiñikan ola bertsolaria franko ona zala, eskatzen zioten arren gañean edo onen gañean bertsoak jartzeko.

Ala, ba, askotan asten omen zan bertsoak jartzen; baño jartzen asi ta segituko kontua izaten omen zuen:

—Arraioa! Neri etzait ola ondo etorriko! Amalau milla demonioak! Bertsoak jarrita, gorrotorik eta olako gauzik eztît nai! Ez, eztît begien bista txarrik jarri bear!

Ta etzuen geiago jartzen.

Ola, beintzat, bein batez asi omen zan, ba, emakume bati edo emakume batzuei bertsoak jartzen. Orduan ere toriatu

omen zuten, da bera zeatu omen zen; asi omen zen bertsoak jartzen.

Eta, bi bertso jarritakoan edo botatakoan, batzuek esaten zuten anaia etorri zela: Ia zertan ari zan bere arrebari bertsoak jartzen. Beste batzuek esaten zuten, berriz, bera konturatu zala. Ez dakigu zer izango zan, baña bi bertsoatik aurrera etzuen pasa.

Auek dira bertsoak:

Sulla buruan iturrira juan,
kalian pasa seriyo;
datorrenari ongi-etorri,
dijuanari adiyoy;
arrazoi aundi airosoren bat
norbaitek aitu omen diyo:
«Diru gabeko mutil kaskarrak
guretzat ez tin baliyo!»

Erromerira prebenitzeko
bear dituzte orduak,
naiz zentimorik bolsan izan ez
aberatsaren moduak;
aurrian titi aundien muestrak,
atzian berriz zakuak,
emakumi oien diñ eztira
etxi ontako trapuak.»

Lenengo bertsoan, *kalian* esan bearrean, *bidian* esaten omen dute batzuek: *bidian* pasa seriyo.

Baña, batzuen iritzirako, bertso auek etziran Bekoetxiarenak, Txirritarenak baik. Au ere Ramon Olaziregi'ren aotik entzuna degu. Ez dakigu zer izango dan.

Alegiña egin degu gure artxiboan bertso auen billa; bertso auen zituan bertso-paperik ba ote genduan alegia, bañan ez degu arkitu.

KONTRABANDOAN

Bekoetxia bertsolaria kontrabandoan ere ibiltzen omen zan, ta arratseko lan orretan gertatu zitzaizkan pasadizo batzuek ere kontatu dizkigute. Onela esan zigun beraren billoba dan Ramon Olaziregi'k:

«Gure aitona zana ibiltzen zan aurretikan, espia-edo deitzen zioten, kontrabandoan.

Gau batez, illetargia omen zegoen, eta aurretikan bere seña edo kontraseña eman omen zioten atzekoai, karabine-roak edo zerbait zala ta geratzeko. Geratu omen ziran; ez dakit zein menditan nik. Eta arboleria omen zen.

Gero aurrera segitu omen zuten. Joan omen ziran beren puntuetara aiek, eta bat falta. Txantxangorri esaten zioten; izena zuen Luis, baño izengoitiz Txantxangorri esaten zioten. Luze bat zen.

Ta gure aiton orrek esan omen zuen:

—Amalau milla demonioak! Apustu

cingo nuke, Txantxangorri ori enborraren bateri begira or geratu zaigula!

Aurreko itzalaz egiten ziran giatu, eta, aurreko laguna zuelakoan, enborraren bateri begira ortxen geratuko zala.

Etorri omen ziran, ba, beren kargak utzita bueltan, da Txantxangorri ura an begira arbol bateri.»

* * *

«Ez dakit nik arako paketea, Txantxangorri orrena, ura zuen edo nola zen. Beintzat, pakete bat omen zekan etxean entregatzeko; bere puntura entregatu ga-bea.

Ta olako pakete oik egiten zituen, orduan Oiartzungo agintariak baitziran, ba, kontrabandoko nagusiak, eta aiei entregatu ta aiek arreglatzen ziran beste lekura eramateko.

Perira zijoan astelen batean or gogoratu zaio:

—Ba! Nik pakete au eraman dezadan! Urrengo berriz ere beste paketeak izango ditit, eta aik eraman! Nik pakete au eraman dezadan eta an entregatuko dit!

Bere pakete orrekin eldu zela perira, bi karabinero betik gora, ta:

—¡Ah, coño! ¡Ya has caído! ¡Ya teníamos ganas! ¡Ven aquí! ¿Qué llevas ahí?

—*¡Nada!*

Ikusi zioten da kontrabandoa. Ia, eramateko bere paketea bizkarrean! Ta artu, ta, bere paketea bizkarrean zuela, an zeramaten.

Ta berarekin ibiltzen zan mutil bat zelaiean lanean ari zala ikusi zuen an bi-deantean, eta esan zion:

—Zer pasa zaizu, Bekoetxia?

Erantzun zion:

—Motell, etzakit zer pasa zaiten! Eldu nak perirako asmoan, eta pakete au bizkarrean eman zidatek eta ekartzeko, bestela il egingo nautela! Emen eldu nak armaren mendean! Badakik zer egin bear deken? Aguro ibilli adi eta esan errian zer pasa den!

Ta karabineroak esaten omen zioten:

—*¿Qué dices? ¿Qué dices?*

—*¡Nada! ¡Me dice que a ver a dónde voy, y le digo que me llevan ustedes!*

Etzuen, ba, orren ondo esango arrek, baño al zuen bezela esan zioten.

Da mutil arek ere bai aguro beste laster-bidetik joan zen errira, eta bere nagusiai edo agintariai, alkatea edo orduan errian agintzen zutenak izaki, ta aiei esan zioten:

—Ola ta ola eldu dek Bekoetxia! Ola ta ola, ta au ta ura esan du!

—A! Ondo da, ondo da! Utzi! Arreglatuko dugu guk!

Eraman dute ara, ta alkateak eta aiek, arriturik bezela, esan diote karabineroai:

—*¿Qué traen ustedes?*

—*Venia con este paquete y es de contrabando, y le hemos pillado. ¡Ya teníamos ganas!*

Galdetu omen zioten berari ia zer zan, da arek lengoa berriz ere: nola eldu zan kalera perira, ta paketea bizkarrera eman ziotela. Ekartzeko ura, bestela ilko zutela!

Karabineroai esan zioten:

—Baño, zer ari zerate esaten? Gizon aukuek kargatu dezute!

Koñe! Aiek biak ezetz, eta besteak baietz. Gañera testigua zuela olako lekutako gizona. Antxe zuela testigua; arek ikusi zuela belar-sorotikan nola zeatu zuten.

Ura deitu ta arek gauza bera: nola berak ikusi zuen bizkarrera nola eman zioten karga ta nola ekarri zuten.

Ta bi karabinero oiek Oiartzundik bialli omen zituzten, ta Bekoetxia libre.

Gure aitonak, olako gauz oiek izango zituen noski bere pekatu aundienak egiñak mundu ontan.»

* * *

Onoko beste gertaera au ere, Bekoetxiaren billoba dan Ramon Olaziregi'k kontatua:

«Beti bezela, beste batean, eldu omen ziran beren kontrabandoarekin. Azukrea omen zuten kontrabandoa, ta beren zaku azukrearekin.

Oraindikan artu berria omen zuten kontrabandoa, ta karabineroak, nunbait ere zitaren bat izan edo, beintzat *alto* egin omen zioten.

Ta gure aiton orrek:

—Ia, mutillak! Korri gure etxeraño!

Denak artu ta eraman ditu etxera. Etxean sartu ta atearak itxi ditu.

Bai karabineroak ere aguro atzetik. Aiek, atearak idikitzeke; ta gure aitonak, etzala aterik idikiko goizeko seirak arte-raño:

—*¡Abre la puerta, tú!*

—*¡No abres puerta hasta las seis mañana!* (1)

Besteak ere, ba, jakin lege orren berri, eta bertan *alto* egin dute. Jendea barre-nean sentitzen, eta *alto* egin dute ta orduan gure aitonak pentsatu omen zuen:

—Bueno, nik bazeukat kupel bat sagardoa!

(1) Garai artan, karabineroak ez omen zuten libre inoren etxean sartzea goizeko seirak baño len.

Aterako zuen pixka bat, eta ara bota zuten azukrea. Zakuai ez dakit zer egingo zioten; zakuak an geratuko ziran, baño azukre oi ara bota zuten.

Eta gero esan zioten:

—Goizeko seirak arte luze ziok! Etorri onera! Baziok gure ganbaran arto-mordoskada bat!

Auzoak aritzen omen ziran orduan artoak txuritzen. Auzoak bata besteai, joan gabeen ta artoak txuritzen aritzen omen ziran.

Artoa txurituaz, etxean zen zer edo zer janez, bertso-tanda, beren zein aritu dira.

Goizeko seiretan, *rau!*, berriz ere ate ondora karabineroak. Ia zer bear zuten, ta etxea ikusi.

—Bueno, goazen gora!

Ia zertan zebiltzan aiek; gizon aiek ia zer egiten zuten, karabineroak.

Auzo-lana egitera etorriak ziralak; artoak txuritzen aritu ziralak! Etortzeko! Artoa nola zegoen zuritua! Lan orretarako zela! Bata besteai laguntzea libre izango zela!

Etxe guzian, gorotz-pilletan da denetan ibilli omen ziran, *riski* ta *raska* beren zeakin, da ezer ez billatu. Esaten omen zioten gure aiton orrek:

—Gorotz orren azpian zillarrezko mina edo zer uste dezute?

Ta karabineroak, arek burla egiten ziotela antza eman da martxa. Ez da ezertxo ere billatu inun, da joan dira ernegatuta.

Andikan denbora-puska batera, bere karabinero oik betik gora. Zerbaiten ari omen zen gure aitona etxe ondoan lanean, da andik pasatzen zirala beren guardiara joateko eta esan diote:

—*¡Eh! ¿Mucho cargados? ¡Otra vez también ya buscaréis vosotros contrabando! ¡Llevar también algo hacéis!*

Zerbait esan omen zioten aiek, eta onezkero egarritu zirala; etortzeko sagardo pixka bat edatera.

Ta egin omen zioten sagardo gozo ura eman; jarroan edo ez dakit nola emango zioten. Sagardo gozo ura eman da batek:

—*¡Esto está muy dulce!*

Ta gure aitona orrek:

—*¡Si no puede ser que esté dulce!*

—*¡Esto está muy dulce! ¡Esto no se puede beber!*

—*¡Ah! ¡A ver si está ahí el contrabando!*

Ori aditu zutenean, segituan zea oiek,

karabinero oiek, an joan omen ziran andikan ernegatuak...»

* * *

Ta Errenteriko Baringarate-goikoa baserriko Euxebio Zabala'k onela esan digu:

«Garai aietan, Pikoketan artu kontrabandoa eta Tolosara joaten ziran; bide luzea ta nekosoia.

Bazijoazen, bein batez, Pikoketatik Tolosara gabaz kontrabandistak, jakiña, eta, Ollokira allegatu ziranean, bateri egin zitzaion mareoa; eta esan zion bazterreko lagunari:

—Zerbait ere pasatzen zaidak!

—Zer dek?

Eta:

—Gora-naia zekat!

Bekoetxia an zegoen aurrean, eta jira ta galdetu zion:

—Zer da? Zer da, ala Jainkoa?

Eta erantzun zion besteak:

—Oni zerbait pasatzen zaiola... Gora-naia dakala ta...

Andikan goiko Berastegiko gaña arrapatzeko aldapa izugarria, ta Bekoetxiak esan zuen orduan:

—Gora-naia dekela? Eztek, ala Jainkoa, komenentzi txarra, nai badek gora igo!

Ta Bekoetxiak aurrera segitu zuen bere kargarekin; baita ere bestea, gizarajoa, gora-naiarekin baño gora joateko gogo aundirik gabe.

Gero eldu dira Tolosatikan kamioz oñez, eta, bidean eldu zirala, ikusi zuten soroan baserritar bat. Artoa ezin jaio eta igitariaren muturrarekin arto-landareai muturra ateratzen ari zen, lenbailen jaio zitezen.

Ta Bekoetxiak ola esan zion an ari zan baserritar orreri:

—Adiskidea: dolorez eldu da, dolorez?

Ta baserritarraren erantzuna:

—Bai, ez da ederra eldu kolorez!

Bekoetxiak:

—Ez daukazu orrekin erria osaturik laborez!

Baserritarrak:

—Nai ez badu ez!

Bekoetxiak:

—Adiskidea: tolosarra al zera paborez?

Baserritarrak:

—Leno bai baño orain ez!»

«TXANTXANGORRI»

Gertaera oietan, Txantxangorri esaten zioten bat aitatu degu. Txantxangorri orrezaz eta bere familiaz zer kontaturik badegu, ta emen esango degu.

Txantxangorri orren ondorengoak, gaur Ergoineko Garate'n bizi dira: Sebastiana Mitxelena, larogei ta amaika urtekoa, ta abar. Auek, Txantxangorri izengoitia nundik datorren esan digute:

«Kontrabandoan ibiltzen ziran, ta izengoitiak jarri bear, ba, mendian zebiltzala elkarren artean entenitzeko.

Egun batez, beren paketeakin bazijoa-zen, da deskantsatzeko geldialdi bat egin zuten.

Otz izugarria omen zen: elurra ta orma. Ta denak txuri-txuri egiñak; Luis orren aitak, berriz, kolore ederrak.

Orduan batenbategen onela esan omen zuen:

—Denak emen gaudek otzak akabatzen, txuri-txuri egiñak, eta txantxangorriaren

paparua baño kolore gorriagoak zeuzkak onek!

Ezkeroztikan, Txantxangorri esan zioten beti; baita semeari ere, ta gaur bizi diran aren ondorengoai ere ala deitzen diete.»

Luis orrek, Gaztelumendi omen zuen abizena, ta, len esan bezela aundia zalako, «osaba luzia» esaten omen zioten illobak.

* * *

Ta Bekoetxia baserrian bertan bizituzan Martina Makulegi'k onela kontatu digu:

«Gaztelumendi dira oik; izengoitia zuten Txantxangorri. Sebastian zuen izena gazteak; eta zarrak, Txantxangorri zarrak, nik ez dakit nola zuen izena.

Garbia zuten andrea, ta amona ere alazen.

Urte batean, gu ume koxkorak giñala, gogoarta egin-egin zuten oiek: gogoratu zitzaioten, bi anaiak amonarekin Urtezar egunean kanta kantatzen auzoetara ateratzea, ta amona ta oik etorri ziran.

Guk bi balkontzillo genituen, da antxe egondu giñan begira.

Amonak *alabatua* kantatu zuen:

Alabatua, bedeinkatua
da sakramentu santua;
pekatuaren mantxarrik gabe
zerade kontzebitua.

Nola kantatu *alabatua* amonak larogei
ta lau urterekin?

Bi anaiak eta amonak kantatu zuten
gañerakoa:

Dios te salve, ongi etorri,
gabon Jainkuak diyela;
legiarekin kunpli dezagun
urte berrien bezpera. (1)

Egin zuten zelebrequeria, ta denak an-
txe txaloka.

Goikoetxiatik asi ziran; andik gure
etxera ta Legatzenera joan ziran; gero
Kabiolara ta atzera etxera.

Afizio aundia zuela badakit; nola kan-
tari egoten zen Txantxangorri zar ori, ori
gogoratzen naz.

Ikazkille bateri jarri zizkion orrek ber-
tsoak; zea, ikatz karraitzen ibiltzen ze-
nari. Nik ez dakit zeñeri, baño ikazkille
bateri. Neri musika asko gustatzen:

(1) Koplak auen doña: Auspoa 116, 73 ta 74
orri-aldeetan.



Mandua gia etenda
astua leno illa,
karretero aundi ori
gelditu duk iya;
oiu eta karraxi
errekatik ontzak,
lurrera botatzen du
euli baten otsak.

Arrek, amona arrek, aurrai ere beitu
zer doñurekin kantatzen zioten seaskara-
ko. Orain ez da olako musikarik ibiltzen.
Zer polita den musika ori!





Ez egin negar, nik emango bai
sagar bat ximel-ximela,
amoña bezin goxua eta
ximurra bera bezela.»

* * *

Martina Makulegi ori argibide ta kanta auek ematen ari zitzaigula, beraren adiskide ta txiki-denborako laguna dan Joxepa Oiarbide ere an zan gurekin.

Joxepa au Karrikako Zaria baserrian jaioa da, gaur Ugaldetxoko Ibarre'n bizi bada ere.

Ta, Martinaren seaska-kanta ori entzundakoan, berak ere beste bat kantatu zuan. Bertsoa, danak dakitena da, *Aurtxo txikia negarrez dago* alegia; baña doñua ez det uste ezaguna danik; arrunt berria da, gure iritzirako beintzat.

Kanta onek ez dauka emen, egia esan, zer ikusirik; bañan, orain argitara ateratzen ez badegu, denbora asko joango da, euskaldunei doñu polit au ezagutzeko biderik eman gabe. Orregatik, ori ere emen jarriko degu:



Aurtxo txikia negarrez dago,
ama, emaiozu titia;
aita gaixtua tabernan dago,
pikaro jokalaria.

MARTZELINA

Martzelina Lopetegi Olaiz
(1864 - 1930)

MARTZELINA LOPETEGI OLAIZ
(1864 - 1930)

GALTZARETA

Makiñatxo bat bertsozalek galdetzen duan gauza auxe da: emakume bertsolaririk izan al da?

Bilintzek sei bertso ditu Ondarrabiko Joxepa bertsolariari jarriak (1). Tolosan ere izan omen zan, garai batean, Manuela bertsolaria zioten bat. Pello Errotaren arreba Sabina ere bertsotan zekiana zan; baita ere illoba Lukaxia, aren anai Juan Kruzen alaba; baita Pello Errotaren alaba Mikela ere (2); Xenpelarren illoba ere, Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, bertsolaria zan. (3)

Badakigu gure zerrenda onek izen asko faltako dituala; ez degu izen batzuek aitatu beste asmorik izan, ondoren izen be-

(1) Auspoa 12, 153 orri-aldean.

(2) Pello Errotaren familiko emakume auen berri: Auspoa 49-50.

(3) Joxepa Antoni onen berri: Auspoa 74-75.

rri bat eransteko: Martzelina Lopetegi Olaiz.

Oiartzunen jaio zan, 1864'eko Martxua-
ren 22'an, goizeko bederatzietan, Ergoin
ballaran, Galtzareta baserrian.

Gurasoak: Frantzisko ta Maria Edubi-
jis, biak oiartzuarrak.

Aiton-amonak, aitaren aiekatik: Jeroni-
mo Lopetegi, Tolosa ondoko Ibarra erri-
koa, ta Maria Josefa Landa, Errezilkoa;
ta amaren aldetik: Sebastian Antonio
Olaiz ta Juana Bautista Agirre, biak oiart-
zuarrak. (4)

Aritxulegiko aldaparen asieran, erreka
beste aldera, eskubitara beraz, malda-
-maldan eta goi xamar, an ikusten da ba-
serri txuri bat, iru arkuperen gañean;
uraxen da Galtzareta, Martzelinaren jaiot-
etxea. Arkupe oiek ez dira etxera sartze-
ko; etxeari eusteko baizik.

Atari aurrean bidea, garai bateko gal-
tzara. Oni zor dio etxeak izena.

Onela esan digu Ergoineko Portuburu
baserriko Inazio Irazu'k:

«Bai, txanda batean, ni Ernanira ni-
joan, ta Errenteriko estazioan Don Ma-
nuel Lekuona'rekin trenean egokitu gi-
ñan.

(4) Oiartzungo 16'garren bataio-liburuan, 245
orrian.

Ala, ezaguera egin genduen Oiartzungoa nintzala ni, ta bera ere bai, ta emengo kontutan asi giñan.

Ta esan zidan Galtzaretara joateko gogo zekala, ta egunen batean joan bear zuela; ixtori zarretako bideak eta lekuak zirala oik, paraje oik.

Eta nik zer gisaz, ba, galdetu nion; ta esan zidan, garai batean, aspaldian, Nafarroatik etortzen ziranak, oñez noski, Aranzakoak-eta Artikutzan barrena eta Zalduñen beiti Pullira etortzen zirala.

Eta Lesaka aldekoak eta oik, berriz, Aritxulegi pasa ta, errekan ur meak bazauden, zuzenean joaten zirala.

Bañan, ur aundiak ziran denboran, etxentatik beetixeago joanta *Central* bat badago, ta or ur mea, ur xabala izaten omen zen; ta, ur aundiak ziran garaian, ur xabala ortan ur meago zelako, or errexago pasatzen ziralako, ortikan pasatzen omen ziran, ta orregatik puntu orrek omen zuen izena Naparrobi.

Guk zubia izaten degun bezela, aik arriak-edo izango zituzten pasatzeko; ta ortikan pasa ta Pullira. Or bildutzen omen ziran bi aldetakoak igual, aldizka.

Gero, andikan beiti, batzuak Alzibarrrera ta besteak Ergoina; Ergoina zijoaizenak, Galtzaretan beiti.

Galtzareta baserria orrek izena omen du, oraindikan ikusten dira-ta, bide ori omen zen egiña arriakin, arri gorriakin. Or, arriak elkarren kontra jarriaz, galtzara egindako bidea omen zen ori. Ta artaz baserri orreri Galtzareta izena jarri.»

Karlisten gerra-denboran etxeari su eman omen zioten; beste deusik ateratzeko denborarik ez eta gaztañak erretzeko danboliña eskuan zuala erten omen zan aita. Gero, bazterrak paketu ziranean, etxe berria egin zuten.

Martzelina-ta, bost senide izan ziran: Guadalupe, Nikolasa, Kanuta, Kaitano ta Martzelina; au danetan gazteena.

Guadalupe, Kanuta ta Kaitano ezkongai gelditu ziran.

Gero ere esango degunez, Martzelina Zabale baserrira ezkondu zan. Zabale ere Ergoin ballaran dago, baña Galtzaretatik urruti xamar.

Ta Nikolasa, Ergoingo Irripa baserrira ezkondu zan. Onen alaba bat, Guadalupe, Galtzaretan artu zuten. Onen ondo-rengoak dira gaur an bizi diranak.

BERTSOLARIA

Martzelina bertsotan ikusitakorik, ez det uste gaur egunean iñor bizi danik. Bañan, beren gurasoai edo aurrekoai entzunda, oiartzuar askok aitortu digute ori.

Ala ere, beste guzien testigantza alde bat utzita, lau lagunena bakarrik aitatu-ko degu emen: Manuela Gaztelumendi, Zabale; Jose Domingo Pagadizabal, Txarondo; Inazio Irazu, Portuburu; ta, azkenik, Manuel Lekuona apaiz jauna.

* * *

Len ere esan degunez, Martzelina Zabalera ezkondu zan; Juan Kruz Irastortza bere gizona. Semeren bat-edo izan zuten, bañan galdu egin zitzaien. Orduan illoba bat ekarri zuten gizonaren aiekatik, Juan Kruz Irastortza au ere; ta au, denboraren buruan, Manuela Gaztelumendi orrekin esposatu zan. Beraz, Manuela au Martzelinarekin etxe berean, Zabalen alegia, bizitua da. Onela esan digu:

«Zuloagako errotan billera egiten zen, eta ola bertsoak bota. Lau aizpa ziran aik, eta bertsoa bota eta arek kontestatu egiten omen zioten. Aizpak ez omen zuten nai izaten, ta erritan ematen omen zioten. Olako zeak aditu izandu nituen nik. Baño emen etzuen; ni onera etorri nintzanerako, zaartua zen.

Jaietan joan laguntzera norbait ere Galtzaretara, ta bertsoak arek barrendik bota ta besteak kanpotik bertsoa bota; ta aizpak erritan ematen zioten. Nik ori aditu izan nioten askotan.

Bai; arek bertsoaren puntua, ola edozeñek zea esaten zuenean ere, arek bertsoan bezelaxe egiten zuen kontestazioa. Bai, bai; bertsolaria zen.»

* * *

Txarondoko Jose Domingo Pagadizabal'ek irurogei ta amabost urte ditu. Txarondo ta Galtzaretara alkarren bistan daude; batetik bestera joateko, erreka-zuloa tartean ta bide puska bat bada, baña ala ere auzo-etxeak dira. Orregatik, adiñez eta auzotasunez, zerbait jakin zezakeana Jose Domingo au, ta ala izaki. Onela esan digu:

«Nik ezagutu nuen Martzelina; bertsolaria zen. Bertsoan edozein gizonekin preparatzen zena izan bear zuen. Nero-

nek ez nuen sumatu; edadea aundia zuen nik ezagutu nueneko ark, ta nik besteri aditua.

Gure aita zenaren edadetsukoa zen emakume ori, ta aik esaten zuten edozein gizasemerekin aritzen zela; ara: zea zela, balientea, edozeñekin bertsoan zeatzeko.

Pello Errota bat, eta bestea zein zuen, ba, ark? Bazen seguru bestea. Txirrita bazen ere... Etzait gogoratzen. Bai, aditu izandua beñepein:

Eldu dirala ikusten ditut
Txirrita eta Pello Errota bestia;
aste bat jua orduko
gañian bestia.

Ezin akordatu segiran kantatzeko; baño oikin, ara, Pello Errota ta oikin prepa-
ratzen zena zen ura; ta ura pamatua zen
denbora aitan, Pello Errota. Orain nik
ez gogoan ark zer puntu edo nola aritzen
zen.

Ezagutu nuen nik ura. Nere ezagueran
esposatu ere egin zen; Zabalera esposa-
tu, ta Zabalen illa da ura.

Alta samarra bai; kolore gorriko ema-
kume alta samar bat zen.

Lau aizpa: Guadalupe, Nikolasa, Ka-
nuta eta Martzelina; oi zen gazteena. Ba-
ña denetan atereena edo zeana zen; izla-

ririk onexkoena edo. Ara: esate baterako zea beñepein, sueltoa. Orain esaten da lotsik gabea, baño ori da gaizki esatea; sueltoa, emakume sueltoa, ta edozeñekin itzegiteko kupidirik ez. Ara: oi da.

Zea zen, gizaseme batek bezelako boza altukoa; ez boza bajuko emakumea, ez; boza altukoa zen.

Ateraldi batzuek ere bai. Ez dakat aintbesterañoko zearik gogoan, baño zea zen: ez zenbait bezelako triste-illuna alako, ez; aterea oso. Baño arrazoia beti pronto, zerbait errespuesta emateko.

Orren etxean, Galtzaretan, iñor joaten zenean, arrera ona ta oik denak bazituzten; solteroak ziran besteak denak.»

* * *

Inazio Irazu, len esan bezela, Portuburukoa da. Baserri onek ere Galtzaretan bistan du; erreka-zuloa tartean ta bidepuska ederra, bañan auzo-etxeak auek ere. Onela esan digu Inazio onek:

«Nere gogoanean bizitu zen ura; baño nola ez baitzen gure bideantea, ez naiz akordatzen ura ikusirik. Baño nere gogoanean urtetan bizitu zen, Zabale baserrian, Galtzaretako alaba.

Gure aitak-eta askotan esaten zuten ura nola bertsolaria zen, eta nola erromeriétara, billeretara-ta, joaten zen.

Barrioetako eta erriko fiestetara neska-kuadrillak joaten omen ziran, ta askotan bertsolariak; garai aietan aixa.

Ta, bertsolariak asten ziran denboran, bera ere arrimatzen omen zen beti bertsolarien aldera; jakiña, bertso-zalea. Ta gero aik ere asitzen omen zitzaizkan andik bertso botzen, ta komeri. Azkenera-ko bera ere sartutzen omen zen bertso-tan, igual plazatik eta igual berengana joanta, eta ekiñaldiak egiten omen zitu-ent bertso-tan; berak ere bai. Gure aitak ala esaten zuen.

Orduan lagunak ez omen zuten nai izaten ura ala joatea, aizpak-eta; ta aik alde egiten omen zuten ola bere ingurutikan, baño arek, bertsolaria izan-ta, bertso-ta-rako gogoia.»

* * *

D. Manuel Lekuona'ren testiguan-tza idatzia da, eta aspaldikoa gañera: Bergara'n, 1930 urtean, «*La Poesía Popular Vasca*» izeneko itzaldia eman zuan, Bostgarren-go Euskal - Ikaskuntza - Batzarrean (*Quinto Congreso de Estudios Vascos*). Batzar ori Abuztuaren 30'an asi ta Agor-raren 8'raño izan zan. Ain zuzen, Martzelina il berria zan, urte artako Abuztuaren 2'an mundu ontatik joana.

Onela dio Lekuona jaunak itzaldi orre-tan:

«En tiempos en que por cada portal había una cuba a la venta pública, y el zumo de la manzana solía ser más rico («que cualquiera tiempo pasado fue mejor»), los sidreros tenían que valerse de algún procedimiento de atracción para lograr una más rápida venta. Quién organizaba una *billera*, quién una apuesta de bueyes. Pero Juan Cruz (1), el molinero de *Zuloaga'ko errota*, en Oyartzun, organizaba *bertsolaris*.

El lo era y de los buenos.

¿Competidor? Podría ser *Eperra*, de «Ayendola»... Pero era de historia liberal. Y hacía correr el agua de la disputa hacia su molino. Y esto desagradaba al público. En él eran muchos —los más— los que habían luchado en las partidas del cura Santa Cruz...

En *Galtzadeta* hay una muchacha: *Martxelina*, la hija del *nagusi*. Dicen que posee en grado eminente el don de la improvisación. Pero, ¿aceptará?... Ella es muy formal, muy formal... Aunque tampoco se anda en melindres para echar unas coplas a cualquier tentador, en la siega de los helechos y en los *artatxuritzes* de la vecindad.

A su padre, sí; a su padre le ha ilusionado la propuesta. Y eso basta.

En el Molino de Zuloaga va a haber una bonita fiesta... Hoy se vacía la cuba.

Hay un público imponente: en la pla-

(1) Juan Kruz Elizegi, Pello Errotaren anaia, Asteasun jaio ta Oiartzunen bizi ta il zana. Bertsolari onen berri: Auspoa 49-50, 119 orri-aldetik aurrera.

zuela, en el camino, en el ribazo, encaramados al muro de la presa...

Ya está la pareja, en el balcón del molino, cara al público.

Apenas ha empezado la contienda y se han cruzado los primeros versos de saludo, Juan Cruz ve venir, por el camino de Ergoyen, a *Errepela Jainko*, de *Otsamantegui*. Bonito tema para una improvisación.»

Urrena, Errepela-Jainko ori zein zan adierazten du, eta ondoren Juan Kruzek ari kantatutako bertsoa ematen. Bañan oiek len ere argitaratuak ditugu: *Auspoa* 49-50, 135 ta 136 orri-aldeetan.

MARTZELINA TA TXIRRITA

Len esan bezela, Martzelina Txirritarekin bertsotan jarduna zan.

Ugaldetxoko Garro'ko Jose Rekalde'k onela esan digu:

«Bein batez, Ergoien, bertsotan aritu ziran Txirrita kanpotik eta neskata oi leiotik; Txirritak aixa botatzen bertsoa, ta neskata ongi aritu omen zen, baño pixka bat lotsatua edo pixka bat kortatua geratu omen zen. Ori gure aita zenari aditua.

Beste batean Txirrita joan zen Galtzaretara, nola baitzuen an bertsotan zakiena. Bruxaren aitzakian joan ta pasa zituen iru edo lau egun an bertan. Gero lanera presentatu zen ta nagusiak esan zion:

—Nun izan aiz, Txirrita?

—Galtzaretan, bruxaren neurriak artzen!

—Ongi bruxa luzea yun oi!

—Bai, luze xamarra egiteko esan diot!»

Besteren batek ere esan digunez, Martzelina jostuna baitzan.

* * *

Ergoingo Portuburu baserriko Inazio Irazu'k, Txirritak Martzelinari kantatutako bertso bat eman digu:

«Orixe ez dakit, ba, nik, bertso ori nun kantatu zuen Txirritak. Ergoingo Zuloaga'ko errotan kantatua izango zen. Ala uste dut ori, ala uste. Gure aitak esaten zituen oik.

Martzelinatxo deitzen diote,
Galtzaretako alaba,
zere denboran egiña zera
zenbait kanta ta algara,
kantak aztuta bizi biazu
nêkin ezkontzen bazara.»

Karrikako Erretizarrene'ko Manuelek, berriz, lau puntukoa eman digu bertso au bera:

Martzelinatxo du izena,
Galtzaretako alaba;
begira dagon jendiak ere
esango dute: Ala da!
Batzuek parra egingo dute,
bestiak berriz algara,
kantak aztuta biziko zera
nêkin ezkontzen bazera.»

Azken puntua, batek *bazara* ta besteak *bazera*. Punturako egokiago dator *bazara*; bañan ori Oiartzungo esaera da, ta Txirritak nekez esango zuan orrelakorik. Ez ote da bertso au Oiartzungo bertsolariren batena izango? Bañan guk gauzak jaso bezela zabaldu bear ditugu; ori da gure eginkizuna.

* * *

Ta Ergoingo Migel Izagirre'k, Migeltzo edo Trumoia esaten diotenak, bertso pare au eman digu, bere doñu ta guzi:

«Txirritak aditzea izaki neskazar bat bazela Galtzaretako baserrian; da egun batean etorri da Txirrita ori txakurrak artuta eizera, ta bota ditu etxearen ondoan. Pentsatu zuen:

—Gaur ateratzen bada neskazar oi, bota bear zioat, ba, bertsoa!

Baita neskazarra atera ere balkoira, ta Txirritak presaka bertso au bota zion:





Aitu bear dituzu
nere abisuak,
abek izango dira
gauza prezisuak:
jakiñaren gañian
jarri gurasuak,
bestela ez du baliyo
nere desiuak.

Ta neskazarrak kontesta:

Ama ta aitarekin
izaten naiz ondo,
ointzat eskusaritan
batere ez dago;
jakiñaren gañian
dirade lenago,
libertadia artuta
aspaldiyan nago.»

AMERIKANOA TA NESKATXA

Onoko lau bertso auek, Lexoti bertso-lariari artu ta kopiatu dizkiogu, baita aurreko adierazpen au ere:

«Amerikano bat neskatxa batentzako gustatzen zen. Izketan esatea etzen atrebitzen, ta bertsoetan esan zion berarekin ezkondu nai zuela. Ordurako gurasoekin itzegiña zegoen, ta gero bertsoetan esplikatu zion. Neskatxa, Oiartzungo Galtzaretakoa zen.

Amerikanoak:

Zure ait'eta amak eta nik
itzez tratatu genduan:
al baldin bazan esposatzeko
biyok aurtengo neguan;
oraintxen laixter esan beauzu
zer dadukazun goguan;
bazenakizu ni zuretzako
zer gauza ona naguan!

Neskatxak:

Zu gauza ona baldin bazaude
munduan ez da txarrikan,
badirurizu gaur bertan irten
zerala infernutikan;
naiagatikan ez dezu entzungo
nigatik baiezkorikan,
etzait gustatzen zu bezelako
mutilzar itxusirikan.

Amerikanoak:

Ez al diozu begiratutzen
nere poltsa-diruari?
Ortatik sobra dabilkigunak
gauza daukagu ugari.
Ez al dituzu ikusi izandu
errian zenbat dendari
jatekorikan eman nai ezik
dirurik eztuenari?

Neskatxak:

Orrelakorik eztet aditu
jaiotzetik oraindaño,
nere negarra zabalduko da
Amerikatik auntzaño;
zuk izan arren urre ta zillar
zedorri estaltzeraño,
nik naiago det neskezar bizi
zurekin ezkondu baño.»

* * *

Neskatxa, asieran esan bezela, Galtzaretakoa bazan, Martzelina izango zan noski.

Bertso auek eman zizkigunari, Lexotiri alegia, zeñi ikasiak zituan galdetu genion, ta etzala oroitzen erantzun zigun.

Bañan, bearbada, bere osabari adituak izango ditu. Osaba orrek, Manuelek, urte asko Galtzaretan morroi egin zituan. Onela esan digu Ergoingo Txarondo baserriko Jose Domingo Pagadizabal'ek:

«Lexotiren (1) semea or urte asko egiña zen morroi, bai. Bera bertsolaria zen ura, ta, edozein puntu tartean botiaz ta gero kanpoko zerbait zenean ere, makiña bat algara gozo eragiña zen ura zar airi. Mutil gaztea zen ta bai...

Amalau urtetan Galtzaretara morroi etorri ta ark pasa zituen or, zenbat? Ogei ta amar arte edo amabi arte or izandu zela uste dut nik ura. Gero, or beste martxik ikusi zuen denboran, ortik atera ta joan ta lantegian asi izandu zen; papele-
ran. Papeleran beste urte-sail bat egin ark.

Kanta zarrak kantatzen asko aritzen zen ura; baña, gañerakoan, berak bota,

(1) Lengo Lexoti bertsolaria. Aren aitamenak: *Auspoa* 115, 37'garren orri-aldetik aurrera. Aren semea emen aitutzen dan Lexoti au; oraingoa, berriz, aien billoba ta illoba.

berririk sumatutako alakorik, ez dakat gogoan.

Bein aditzen baldin bazuen, dena gogoan. Dena! Ark letura guk baño eskasagoa zuen; etzuen guk aña eskola ere. Baño, ala ere, dotriña dena, lengo dotriña zarra, itz bat utsegin gabe bazakien ark memorian dena; ark erakutsi ere egin izandu zigun guri.

Lekobideren kankak ere kantatzen zitu-
tuen:

Gu Erniyoko kaskutik bera
bosteun aiton buru-zuri,
amil gaitezen goitik bera ta
geren odolak ixuri,
ondorengorik erromatarren
kontra ez dediyen erori.

Oik eta olako asko! Egun guzian ixil-
du gabe aritzen zen ura kanta zarrak kan-
tatzen. Egun batean aritzen giñan illun-
du arte, goizean asi ta illundu arte; ta
bestean aritzen giñan bukatu arte, erro-
sarioko abe-mariak edo geiago arte; ta
aparia egin orduantxe. Makiña bat ala-
ko!»

Beraz, len esan bezela, etzan batere
arritzekoa izango, oraingo Lexoti onek
bere osaba zan Manueli ikasiak izatea
bertso oiek.

Ta orain arestian aitaturako bertsoa zeñena ote? Ernioko gerrari buruz bertsoak jarritakoak, Iztueta ta Txirrita ditugu; bañan auen salletan ez dago bertso ori. Patxaraz eta arretaz astindu degu gure artxiboa, bañan alperrik. Beraz, galdu dan sail batekoa izango degu; ta sail bikaña izango zan, guk uste, bertso ori ona baita.

MARTZELINA TA ARTXABALETA

Artxabaleta Ergoingo baserri bat da. Aritxulegi aldera aldapan gora goazela, kamiotik eskubitara ta beerago, antxe dago baserri ori, malda-maldan eta zoko xamarrean.

Angoxea, bertsoan poliki egiten zua-na ere izan omen zan. Inazio Mitxelena zituan izen-deiturak; bañan, oi danez, etxearen izenaz esaten zioten: Artxabaleta.

Martzelinak Artxabaleta orri kantatu-tako bertsoa badegu. Portuburuko Inazio Irazu'ri jaso genion. Onela zion jaun onek:

«Artxabaletari ere kantatu zion beste txanda batean; ura ere Ergoinen kantatua izango zen:

Artxabaleta, mutil polita,
gustatzen zitzaidan gaztetan;
ontâ ezkeru igualtsu da
esan eta're plazetan;
nai dezunian juan zaitia,
antxen bizi naiz Galtzâtan.

Oi bearbada Oiartzungo plazan kantatua igual, plazan esaten du eta.»

Artxabaleta onek eta Martzelinak beste artu-emanik ere izango zuten alkarrekin; ez degu, ordea, olakorik besterik jasoko. Bañan Artxabaleta orrezaz zerbait geiago esan genezake. Onela kontatu zigun Portuburuko Inaziok:

«Arek ere bere buruari bertsoak, bueno, beregaitan bertsoak jarri izan omen zitun. Balentiñek (1) bazekizkien. Aditu izan nizkan; ez naiz aietaz akordatzen, baño bertso batean zerbait puntu artu nion:

Postur'oietan dabilena da
Artxabaleta berbera,
gaztetatikan eman ziraten
republikaren bandera,
Jaun Zerukuak nai duen arte
nunbait izango al gera.

Etxean aserretu ta ola atera izan bear zuen, ta orduan kantatutako bertsoa omen zen Portuberrin; orduan berak jarritako bertsoak edo kantatuak. Balentiñek bazekizkin, bai.»

Bañan Artxabaleta ori Bidasoaz beste

(1) Balentin bertsolaria: Auspoa, 115, 97 orrialdetik aurrera.

aldera joan zan bizitzera. Onela esan zigun Portuburuko Inazio orrek berak:

«Ori emendik Frantzira joan zen. Ordurako ezkondu ta famelia azitzen ari zena, Frantzira bizitzera.

Emendik denbora artan uste dut famelia franko joan zela Frantziara. An baserriak ustu edo nik ez dakit, ba, zer pasatu zen, gerra izugarria izandu omen zen da. Intzentsotik ere beste batzuk joan izandu ziran; or Intzentso baserria ortatikan ere, ara bizitzera. Gure osaba ta izeba bat ere bai; an izaten dira umeak, berak ilta.

Ola, an bizimodu ohea edo nik ez dakit, ba, zer esperantzaz joan izango ziran emendik. Oik ere orduan joanak, eta Artxabaleta ta oik ere bai; orduan joanak, bai.»

Urrena onela jarraitu zuan Portuburuko Inazio orrek:

«Trankilla, Artxabaleta ori trankilla zen. Portuberriko alaba andrea; ta, oraindikan ezkondu gabea, taberna Portuberri eta Portuberrira joaten omen zen.

An omen zen egun batean. Bertako amona, andregaiaren ama, sukaldeko lanetan ari omen zen. Esnea jarri omen zuen, guk egosi esaten dugu, irakiten edo egosten. Orduan ola paziak aproposak izaten ziran. Ta, amona, andrea oi,

beintzat, bere lanetan ari zela, zerbait ere txerriai edo olloai-edo ematera joan bear ta esan omen zion:

—Inazio, beitu iok esnea orreri!

Alegia, gora joaten baita esnea irakiteko denboran. Ta joan omen zen ta arri-aztu, norbaitekin izketan ari zela, ta esnea *rrrraaaa* ixuri omen zen.

Etorri omen zen korrika, baño joana, martxa egiña; ta etorri ta esan omen zuen amonak:

—Ederra egin didak! Esnari begiratzeko esan eta orain esnea joan duk!

—Begira-begira nengoen! —erantzun omen zion.

Olaxeko sakeak zituen gizona; gozoa, gizon gozoa.

Beraren koñadua zen Prantxisku Mari. Arek ere minetan; elkarrekin lanean, ta trankilla.

Arpegia, musua esaten dugu guk, lane-tik gelditu ta etxera etortzeko, arpegia garbitu, arropak ganbiatu ta ola; ta arpegia garbitzen denbora asko deskan-tsuan.

—Mugi adi, Inazio, mugi adi! Ik denbora asko bear izaten duk arpegia garbitzen!

Burua soil-soilla omen zuen, da:

—Bai, nik arpegi aundia baitut; atze-
rañokoa baitut!

Artxabaleta ori Frantzira joan ta etor-
tzen zen. Jakiña, alaba ere emen bai-
tzuen, da lagunak ere bai; andrea emen-
goa, bera emengoa ta olaxen.

Andik etorri-aldi batean, gure aita ze-
na, Rafael, Balentiñen aita, bertsolaria
ura ere, Tomaxen bordan orduan bizi-
tzen ziran, ta ola, Portuberritik gabean
atera. Amarrak; amarretan orduan erre-
tira egiten omen zen tabernetan neguan.
Amarrak aldean atera ta gure etxera eto-
rri; ta emen sagardoa edaten ta ango
kontuak esaten, ta gure aita ezin asper-
turikan arekin.

Ta zer lanetan aritzen ziran ta milita-
rakin aritzen ziralta; militarrai lagun-
tzen, zeozer antiareoentzako-edo, pieza
batzuk eramaten aritzen ziralta, bear zen
tokira.

Ta:

—Zer pieza izaten dituk?

—Aik? Aik erdia burnia ta beste erdia
goma;

aikin pasatzen diagu broma!

Ementxe denak parrez egondu giñan,
sukaldea ontantxe. Olaxeko esaerak ba-
zituen.

* * *

Urrena, Inazio orrek berak zuzenduta, Artxabaletaren alabarengana joan giñan: Kontxezi Mitxelena, Errenteriko futbol-zelaiaren ondoan bizi dana. Lenengo, Galtzaretako Martzelinagatik galdetu genion, ta onela esan zigun:

«Martzelina Zabalekoa, bai. Ura bertsotan aritzen zen. Nik ez dakit nun aritzen zen edo nola. Gizonak tabernetan aritzen dira, ta ura ez dakit. Bertsotan aritzen zela esaten zuten, bai.

Baña orduan emakume bat, bertsotarako zea izanda ere, etzen asko ariko. Gaur bai, ariko litzake; gaur emakume batek nunai bertsotan, baleuka etorria-edo bertsotan aritzeko. Ez litzake lotsagarri izango; baño orduan dena lotsagarri izaten baitzen.»

Urrena, bere aitarengatik galdetu genion, bertsorik-edo bai ote zekian, eta onela erantzun zigun:

«Guk ez dakigu aren bertsorik, etxean etzen bertsotan, izan ere, aritzen ta. Arek, gure aitak, bota baldin bazituen, tabernan botako zituen.

Eskolik ere ez ta jarri ere ez. Ez, gure aitak etzuen bertsorik jarriko; ez dut uste; nik dakidanik beñepein...

Orain berrogei ta zenbat urte joan giñan gu? Frantzira joan giñan famili guztia, nik ogei ta iru urte nituela; ta orain

irurogei ta amaika baditut. Famili guzia, denak joan giñan gu.

Marruekos'ko gerra zen. Gure aitak bost mutil bazituen, da aik soldadu joatea etzuela nai. 21'eko kintoa zen anai zarrena, 21'ekoa, eta *desastre de Annual*-edo orduan izandu zen Melilla'n, da orduan jende asko joan zen desertore.

Gure etxetik anai bat lenengo, eta urrengo urtean beste anaia. Gero baserri bat billatu zioten an, Frantzian, ta fameli guzia ara joan giñan. Senpere erria, ta etxeak izena zuen Petikenborda. Orain ez da an bizi guretakorik.

Frantzian il zen, ta ango gerra-denboran. Ikusi ere ez genduen egin izandu. Il ta gero noizbait ere abixatu ziguten. Or gerran baitziran. Emengo gerra bukatua izango zen; baña gero egondu zen artean emendik ara joaterik etzela, eta andikan ere ez onera etortzerik. Ibiltzerik etzegoen or iñun, ta orrela urte asko egon egin giñan.

Denak Euskalerraren barrenean biziki, eta, emendikan ara joateko, bi bideredo menditik barrena joan nintzan, alemanak zauden denboran.

Mugan dago erri ori, Naparroan. Zugarramurdi edo olako izen bat zuen. Bi baserri bazituzten aik: senar-emazteak ez omen ziran oso ondo arreglatzen, bañan

ez omen ziran oso asarre ere izaten. Ume batzuekin gizona Sarako baserrian egoten zen, da andrea beste ume batzuekin an, Naparroako baserri artan.

Andrea ura, astean bi aldiz, San Juan de Luz'era arraultzak-eta eramaten zituena.

Ara eraman niñuten ni, aien baserrira, goizean goiz mezara joateko aren amarekin. Bueltakoan ere an lo egin nuen. Baño andik Sarara oñez; gero Sarako baserrian karro ta zaldia artu. Zaldia ta karroa artu ta San Juan de Luz'era joaten zen. Jesus! Makiña bat urtean ibilli zen, bai, andrea ura ala.

Bi biaje alaxe egin nituen, aita ta ama ikusteagatik, bai.

Lenengo, aita il zen; baño andik laixter il zen ama ere.

Bertsotarako afizio duna, berriz, nik Landesetan dakazkit bi anai, ta aitako batek, zarrenak, afizio aundia du bertso zarrak kantatzeko. An eztu, ba, euskaldunik-eta iñor. Gaskoñak esaten diote ango jendeari. Gu lengo urtean izandu giñan, ta bertsoa ere badaki oraindik. Ez dakit zeñen bertsoa, iñola ere ezin gogoratu, ta:

—Bai, gogoratuko zaidan bigar ukulluan ari naizela!

Bai etorri ere; urrengo egunean antxe ari zen kantari. Aztu egiten baitira, ez bada iñorekin ola berritzen. Baño etortzen zaizka arreri oraindikan, asko gañera, len-lenoko zeak.»

EZKONTZA

Martzelina, 1907'eko Urriaren 29'an ezkondu zan, Oiartzungo elizan, berrogei ta iru urterekin. Gizon-gaia zuan Juan Kruz Irastortza Mitxelena, 43 urtekoa au ere. (1)

Juan Kruz, Ergoingo Zabale baserrikoa zan, ta bertan jarri ziran bizitzen.

Oiartzungo eliz-artxiboan ageri danez, seme bat izan zuten, 1910'eko Otsaillaren 14'an, arratsaldeko iruretan jaioa. Ezarritako izenak: Balentin Manuel Kanuto. (2)

Etxean bataiatu bear izan zuten, ta biaramonean, 15'an, il zan, arratsaldeko lau t'erdietan, «*por debilidad congénita*» eriotz-agiriak dionez. (3)

Bañan Manuela Gaztelumendi'k, Zabaleko oraingo etxeakoandreak alegia, esan

(1) Oiartzungo 12'garren ezkontza-liburuan, 46 orrian.

(2) Oiartzungo 22'garren bataio-liburuan, 31 orrian.

(3) Oiartzungo 15'garren eriotz-liburuan, 103 orrian.

digunez, besteren bat ere izan zuten. Onela zion Manuela onek:

«Semea izandu zuten, ta partotik galdu zitzaion. Berriz ere izan bear zuten, ta berriz ere galdu.»

Baten agiria arkitu degu guk artxi-boan; besterena etzaigu azaldu. Bearbada, beste ori illa jaioko zan.

Bat edo bi, ziranak beintzat galdu eta besterik izateko itxaropenik ez nunbait. Orduan, senarraren aiekatik, illoba bat ekarri zuten etxera: Juan Kruz Irastortza, Oiartzungo Emieta baserrikoa.

Juan Kruz ori, denboraren buruan, aitatu berri degun Manuela Gaztelumendi'rekin ezkondu zan. Juan Kruz il zan; Manuela ta famelia bizi dira gaur Zabalen.

Manuela onek onela esan digu:

«Nik mozten nion illea —Juan Kruz zarrari alegia—, ta egun batean oso zea zegoen, oso alaia zegoen; illea moztutzen ari nintzan da zerbait zartu-argurioa esan zuen:

—Bai, zartuta esposatu giñan da!
—esan zidan.

—Zartuta esposatu? Zertarako egondu ziran, ba, bitartean?

—Bitartean zertarako egondu giñan?
Zea: besteren bat ohea arrapatuko zue-

lako, beti luzapidea ematen zidan; luzapidea ematen zidan ta egon-egon-egon egon giñan; da, besterik etzuenean, artu niñun.

Ikaragarrizko algarak egin nituen nik.

—Orrekin ere kontentu jarri zaitut?
—esan zidan.

—Bai; kontentu jarriko ez nintzan, ba?
Ola pasa zenduten orduan denbora?

—Bai; orixe pasa zitzaidan: ni baño obea arrapatuko zuelako, beti luzapidea ta luzapidea; eta egondu giñan da gero orra: zartu!»

ERIoTZA

Martzelina irurogei ta sei urterekin ilzan, 1930'eko Abuztuaren 2'an, goizeko bederatzieta, Zabale baserrian, elizakoak artu ondoren, «*a consecuencia de bronconeumonía*», eliz-agiriak dionez (1). Testamentua ere egin zuan, Errenteriko notarioarekin.

Martzelinaren eriotza nola izan zan, iltzen lagundu zionak, Manuela Gaztelumendi'k alegia, esango digu:

«Perlesiak jo zuen; perlesiak jo ta erori egin zen. Zelaiean erremolatxa ateratzen ari zen, ta, erremolatxari tiratu zionarekin batean, *ra!* erori zen.

Ekarri genduen, eraman genduen goiti besoetan, ta esan nion:

—Oira joan bear duzu, oira!

Arpegia oker-oker-okeregin zitzaion. Gero, berotu ta pixka bat zeatu zen. Itza etzitzaion kendu; itza ongi egiten zuen. Aieka bat geldi egin zitzaion.

(1) Oiartzungo 17'garren eriotz-liburuan, 86 orrian.

Gero eletrikarik eta sekulako zeak, korrienteak, eman izandu zizkion Don Rejino medikuak; eta pixka bat zeatu zuen, mugitu zuen.

Esaten zuen Martzelinak:

—Oi! Komuneraño, komuneraño ni neroni beintzat!

Ta gero sukaldera asi zen pixka bat; sukaldera asi zenean kontentu zen.


Baña gero egin zen pulmoniak arrapatu; aretxek bukatu zuen.»

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat.
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*)
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak.
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak.
29. *T. Alzaga*: Burruntziya.
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzan.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.

33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena.
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972.
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurrak.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA